

Zaintzak ekofeminismotik, ekonomia feministatik eta Bizitza Onetik berpentsatzeko gonbidapenak

Nora Silva

Izenburua: Zaintzak ekofeminismotik, ekonomia feministatik eta Bizitza Onetik berpentsatzeko gonbidapenak

Edizioa: InteRed Fundazioa

Argitalpenaren koordinazio teknikoa: Iratxe Palacín Garay

Egilea: Nora Silva Leis

Eskerrak: asko dira lan honetan parte hartu duten pertsonak eta eskerrak eman nahi dizkiegu, beraien ekarpenak, ezinegonak eta konpromisua lan honen emaitza direla ziurtatuz: Malen álvarez, Nora Silva Leis, Rubén Gallego, Macarena Arrieta, Guillermo Aguado, Jorge A. Correa eta Josune Urrutia Asua.

Berrikusketa: Guillermo Aguado de la Obra

Itzulpena: Bakun S.L.

Azala ilustrazioa, diseinua eta maketazioa: Josune Urrutia Asua

Data: 2018ko apirila

ISBN: 978-84-946423-5-7

CC BY NC ND

Argitalpen hau Garapeneko Lankidetzaren Euskal Agentzia eta Bizkaiko Foro Aldundian finantzazioarekin burutu da. Argitalpen honen edukia InteRed Fundazioaren ardura da eta ez du GLEA edo BFA aren iritzia islatzen.

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE COOPERACIÓN PARA EL DESARROLLO

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

ZAINTZEN PEDAGOGIA
PEDAGOGÍA DE LOS CUIDADOS

InteRed
por una educación transformadora

6 Zaintzak ekofeminismotik, ekonomia feministatik eta Bizitza Onetik berpentsatzeko gonbidapenak

7 Sarrera

9 Zaintzen Pedagogia, indarkeria matxistak prebenitzeko oinarri gisa

17 Zaintzen Pedagogia eta ekonomia feminista

27 Zaintzen Pedagogia eta ekofeminismoa

40 Zaintzen Pedagogia eta Ongi Bizitzea

51 Bibliografia

Zaintzak ekofeminismotik, ekonomia feministatik eta Bizitza Onetik berpentsatzeko gonbidapenak

Toda pedagogía es política, por acción o por omisión.

Almudena García

Nora Silva Leis

Gizarte Langilea eta Soziologoa da eta ikerketa feminista eta genero masterra burutu du. Gizarte eraldaketarako hezkuntza teknikari moduan 5 urtez InteReden lanean jardun da, " Zaintzaz bizi, errealitatea eraldatu I eta II fasea", bertan gizarte eraldaketarako tailer desberdinak gestionatu zituen, formazio formal eta ez formalean.

Sarrera

Ezer gutxirako balio du berdintasunezko errealitate bat eraikitzeak, desparekotasunik badela sinesten ez badugu. Errealitate kooperatiboago bat bilatzen dugu, baina ikastetxeetan banakako ezagutza-probak egiten jarraitzen dugu. Uste dugu jolaserako guneak garrantzitsuak direla, baina haurrak izkina batean baztertzen ditugu edo jolaserako denbora mugatzen dugu. *Zerbaitek huts egiten du. Ez al zaizue iruditzen? Zer ari gara oker egiten? Zer unetan nahasi gara? Zerbait aldatu behar dela uste al duzue? Beste modu batera egin behar al ditugu gauzak? Edo ongi al dago dena?*

Lehengo moduluan aipatu dugun bezala, *Zaintzen Pedagogiarako haziak izenekoa*, ez dugu irtenbiderik emango hezkuntza-ingurunea zaintza-gune bihurtzeko. Arrazoi nagusia da ez dagoela modu bakar bat zaintza-gune bat sortzeko: oso jardunbide egokiak daude martxan, prozesuan lagundu diezaguketenak, baina gogoan izan behar dugu ez dagoela irtenbide magikorik, ezta azkarrik ere, horretarako. Hori dela eta, ezinbestekoa da gu geu aldaketan inplikatzea. Izan ere, norberaren baitatik –hots, gure baitatik– hasten bagara, aldaketa benetakoa izan ahalko da.

Geure burua proposamenean islatuta ikusten dugunean, inkoherentziak agertuko dira gure zereginetan, ustekabean agertu ere. Milaka inkoherentzia. Prozesuaren parte da hori. Baina ez izutu! Gauzak diren bezalakoak dira, eta hori da bidea, lehen pausoa eraldatzeko, bizi garen guneetan koherentzia handiagoa lortzeko.

Hasten garenean geure burua proposamenetan islatuta ikusten, proposamenetan benetan sinesten eta gure kabuz eta gure baitatik aldatzen, konturatuko gara zenbat gauza kontraesankor egiten ditugun; hain zuzen ere, maiz ez dugulako birplanteatzen egiten dugun ekintza bakoitza. Horrela irakatsi ziguten gauzak egiten: ezarri ditugun helburuei erantzutera behartuta gaude. Maiz, legez ezarritako programazioei edo helburuei erantzun beharrak dakarren tentsioari egin behar diogu aurre, aldatzen ari garen bitartean. Eta horrek gelditzea eta arreta desbideratzea dakar. Ez dugu zertan kezkatu. Ez dugu ahaztu behar zergatik eta zertarako hasi garen eraldatzen, horrek lagunduko baitigu aurrera jarraitzen.

Kontua ez da geure burua zigortzea. Ez dugu beti jakingo nola egin, are gutxiago zer egin. Horregatik, garrantzitsua da beste esperientzia batzuetatik ikastea,

geure burua gu bezala eraldaketarantz doazen beste lankide batzuengan ikusteko. Gu guztiok perfektuak gara garen-garenean, eta bizitzen ari garen prozesu hau, hots, zaintzen pentsamendu/ekintza bateranzko eraldaketa-prozesua, gure pentsamendua/bihotza eta gure ingurunea berreraikitzeko prozesu bat da. Inork ez du esan bidea egun batetik bestera egin daitekeenik, eta, norbaitek hori esan badu, aldaketa hori egitera animatuko genuke.

Geure burua proposamenetan islatuta ikusi nahi izatearen ondorioz pairatzen dugun tentsioaren harira edo geure burua sinesten dugun teoria batekin identifikatu nahiaren ondorioz pairatzen dugun aldaketa-prozesuaren harira, Marianne Frankek tentsio edo aldaketa-prozesu horri aurre egiteko moduari buruzko bere ikuspegia helarazten digu "Eres uno de nosotros" (2012) bere liburuko testu honekin:

Uno debe tener paciencia
frente a todo lo no resuelto en su corazón
Debe tratar de amar las preguntas mismas
como a aposentos cerrados
y como libros escritos
en un idioma muy extraño

Si uno vive las preguntas,
tal vez, en un lejano día,
poco a poco,
sin advertirlo,
llegue a penetrar en la respuesta.

Aldaketak, eraldaketak, erabatekoa izan behar du (curriculuma, programazioa, guneak, jarrerak, harremanak), eta oso interesgarria izango litzateke errotikakoa eta behin betikoa izatea. Nahiz eta ezin den beti horrela izan. Batzuetan, aldaketa gerta dadin, pausoak ematen hasi behar dugu. Pausotxoak, esango genuke guk, aukera emango digutenak ibiltzen hasteko ikuspegi-aldaketa horretarantz, hain beharrezkoa den paradigma-aldaketa horretarantz.

Aldaketa horrekin topo egiteko, beharrezkoa da jakitea nondik abiatzen garen eta zein diren bidean lagun ditugun proposamen teorikoak. Bai eta geure burua proposamen horietan ikusiz nola gerturatu gaitezkeen gero eta gehiago zaintzen gune batera, zaintzen Pedagogia batera.

Zaintzen Pedagogia, indarkeria matxistak prebenitzeko oinarri gisa

Maiz, beldurgarri egiten zaizkigu oso argi ez ditugun kontzeptu batzuk, gizarteak arrazoiren batengatik negatibo bilakatu dituenak. Horietako bat feminismoaren kontzeptua izan da. Hortaz, lehenbizi, utziguzue kontzeptu horren esanahia zein den adierazten:

> **Feminismoa berdintasunaren printzipioan oinarritzen** den diskurtsoa eta jardunbide politikoa da. Oinarritzat du justiziaren ideia, eta aldarrikatzen du emakumeak eta gizonak berdinak direla eta eskubide eta askatasun berberak dituztela.

Feminismoa benetan hori zela uste al zenuten? Orain, esanahiak ez dirudi hain zentzugabea, ezta? Nola liteke gizarteak borroka hori gaitzestea eta ezkutatu nahi izatea?

Feminismoaren helburua da emakumeek, giza talde edo kolektibo gisa, **kontzientzia hartzea** patriarkatuaren baitan pairatu duten eta oraindik ere pairatzen duten zapalketaz, menderatzeaz eta esplotazioaz[1]. Feminismoak ekitera bultzatzen gaitu, patriarkatua askatzeko –horretarako egin behar diren gizarte-eraldaketa guztiak eginda–, azpiko kategoriatik gora jotzeko eta gizonek dituzten eta izan dituzten eskubide berak lortzeko, eta emakumeek egunero-egunero pairatzen dituzten mikromatxismoak eta zapalkuntzak ezabatzeko. *Ez du helburutzat gizonarekin parekatzea, baizik eta aitortuak izatea, zapalduak ez izatea, libreak izatea.*

Aurrera jarraitu aurretik, utziguzue beste bi ideia argitzen, gaur egun ere mozorrotu egiten baitira uler ez ditzagun.

Matxismoa eta feminismoa ez dira gauza bera; are gehiago, aurkakoa ere ez dira. Matxismoa gizonak emakumeen gainetik daudelako ustean oinarritzen da. Feminismoa, aldiz, berdintasunaren teorian oinarritzen da.

Gaur egun ere, feminismoari buruzko milaka aurreiritzi eta informazio oker aurkitzen ditugu. Ziur asko, milaka aldiz entzun eta errepikatuko genuen aurreiritzi, esaldi egin edo topiko matxistaren bat, konturatu ere egin gabe.

"*Emakumea izan behar gidatzen zuena*".

"*Egin dezala gizonak, indar gehiago du eta*".

1 Hemen dago definizioa: **http://www.mujeresenred.net/spip.php?article1308**

"*Gizonak arrazionalak dira, eta emakumeak emozionalagoak*".

"*Gizona donjuan bat da; emakumea, berriz, lotsagabe bat*".

"*Urduri samar zaude. Hilerokoarekin al zaude?*".

"*Emakume baten antzera egiten duzu borroka*".

"*Ongi merezia du emakume horrek. Begira nola zihoan jantzita*".

Oso nabariak dirudite, ezta? Hainbesteraino, ezen gogaitu egiten baikaituzte. Eta jakintzat ematen dugu denok bat gatozela eta topiko okertzat jotzen ditugula, baina topiko horiek entzun ditugu, eta ziur asko noizbait errepikatu ere.

Argitu nahiko genukeen azken ideia **generoaren kontzepzioan gertatzen diren dikotomiena da**. **Generoa** gizarte batean sexu bakoitzarentzat egokitzat jotzen diren jokabideen definizio kulturala da. Alegia, gizon "izateko izan beharreko" jokabideak eta emakume "izateko izan beharreko" jokabideak.

Jarduera:

Marraztu paper batean bi profil desberdin. Bat emakume batena eta bestea gizon batena. Eta idatzi edo marraztu zerk "egiten dituen" gizon eta emakume. Alegia, jarrerak, jokabideak, eta abar. Hori egin ondoren, zirrimarratu biologikoak ez diren ezaugarriak. Zer aurkitzen dugu? Zerk bereizten gaitu?

Femeninoa	**Maskulinoa**
Natura	Kultura
Samurtasuna	Gogortasuna
Gorputza	Burua
Emozioa	Arrazoia
Mendetasuna	Autonomia
Pribatua	Publikoa
Ugalketa	Ekoizpena

Hobeto ulertzeko, jar dezagun adibide bat. Gizonak ausarta "izan behar du"; emakumeak, berriz, beldurtia "izan behar du". Gizonak indartsua "izan behar du"; emakumeak, berriz, ahula "izan behar du". Gizonek "izan behar duten" gauzak eta emakumeek "izan behar dutenak" aurkakoak dira. Alegia, ausarta beldurtiaren aurkakoa da; indartsua ahularen aurkakoa da.

Horretaz gainera, kulturalki, gehiago balioesten dira ezaugarri maskulinoak femeninoak baino. Hots, hobeto ikusita dago ausarta izatea beldurtia izatea baino, gogorra izatea samurra izatea baino.

Hortaz, bi genero-identitate edo -rol sortzen dira, elkarren aurkakoak, eta baten ezaugarriak balioesten dira, eta bestearenak gutxiesten.

Zaintzen kasuan, emakumeek zaindu "behar dute", eta gizonek "izan behar dute" zainduak. Lanetan, gizonek egin behar dituzte lan produktiboak (ondasun material bat sortzen dutenak), eta emakumeek ugalketa-lanak (bizitzari eusteko lanak, zaintzak).

Zaintzen Pedagogiaren ikuspegitik, kontsideratzen dugu genero-dikotomia horiek zertan dautzan eta gure eguneroko bizitzan nola eragiten diguten ulertu behar dugula, dikotomia horiek gainditzeko eta "izan behar duguna" baino gehiago izateko.

Jarduera:

Zer sentiarazten dizuete albiste hauek?

"Los padres del asesino del Salobral: "Ha sido por una locura de amor".

"Rivas, el hombre que convirtió en oro las rabietas de Carolina"[1].

1 Diario AS, Facebooken argitaratua 2016/08/19an.

Baliteke ezer ez sentitzea. Eta albisteak berriro irakurri behar izatea, esaldiaren "elementu matxista" non dagoen konturatzeko. Ez da ezer gertatzen. Urte askoz sinetsarazi digute emakume guztiak eta gizon guztiak desberdinak garela. Hainbesteraino, ezen gizonak ere emakumeak baino hobeak baitira, eta, beraz, jada ez gara beti ohartzen emakumeok diskriminatzen, gutxiesten eta ikusezin egiten gaituztela.

Jarduera:

Zer sentiarazten dizute bideo hauek? Islatua sentitzen al zara? Gertatu al zaizu?

"Querido papá, algún día me llamarán puta".

"De verdad no te ha pasado".

Ez al zaizue gertatu gehiago frogatu behar izatea emakume izate hutsagatik? Jakintzat ematea indartsuagoak zaretela gizon izate hutsagatik? Edo zuen sexu-orientazioa zalantzan jartzea ezarritako feminitate- edo maskulinitate-kanonetan sartzen ez den jarduera bat egiteagatik? Hori guztia generoaren ondorioa da.

Garrantzitsua da jakitea zerbait izatera behartzen gaituen oro ez dela batere pertsonala. Ez du zerikusirik gutako bakar batekin bereziki.

Aspaldidanik, gizarteak **sistema soziopolitiko bat sortu du, non genero maskulinoa eta heterosexualitatea beste genero eta sexu-orientazio batzuen gainetik baitago**. Horren ondorioz, emakumeak emakume izate hutsagatik diskriminatzen dira, eta beste kolektibo batzuk ere diskriminatzen dira, hala nola LGBTI pertsonak. Egitura soziopolitiko horri **heteropatriarkatu** deritzogu.

Konturatu gabe, genero-pentsamendu horrek munduan izateko eta egoteko dugun modua markatu du. Txikitatik esan digute nola jolastu behar dugun, norekin jolastu behar dugun, eta abar.

Genero-eraikuntza hori sendotuz, gizarte matxista bat sortu dugu. Tamalez, pertsona guztiok pairatu dugu bizitzan indarkeria matxista, eta, ziur asko, denok hauteman dugu generoarekin lotutako diskriminazioa. Gaur egun ere, gure gizartean politika, jarrera, indarkeria eta irudi matxista batzuk nagusitzen dira, inolako zigorrik gabe.

Ekintza-jardunbide egokiak:

"Educación con perspectiva de género"

Zaldupe, Ondarroako Eskola Publikoa

Aurten, orain arte[2], espainiar estatuko 90[3] emakume erail dira, emakume izate hutsagatik. Gaur egun, espainiar estatuan, emakumeek gizonek baino 23,25%[4] gutxiago kobratzen dute lanpostu berean. Gaur egun, etxeko zereginak eta mendetasuna duten pertsonak zaintzeko zereginak egiten dituzten emakumeak egunero 4 ordu eta 29 minutu aritzen dira horretan. Gizonak, aldiz, 2 ordu eta 32 minutu aritzen dira zeregin horietan egunero[5]. Gaur egun, oraindik hiru herrialdetan (Brunein, Arabiar Emirerri Batuetan eta Vatikanoan) emakumeen sufragioa edo botoa ukatuta edo baldintzatuta dago.

Baina egoera hori ez du patriarkatuak soilik eragiten. Kapitalismoak egoera hori atzeraelikatzen du. Kapitalismoak, hain zuzen ere, patriarkatuak ezarritako ordena soziala erabiltzen du emakumeen esplotazio eta gizarte-bazterkeriako egoerei beren horretan eusteko, eta diskriminazio eta indarkeria mota berriak sortzen ditu.

Ezagutzen al duzue desberdintasun-egoerarik zuen hezkuntza-esparruan? Egiten al duzue desberdintasunik mutilen eta nesken artean, kontuan harturik nola begiratzen diezuen, nola baloratzen duzuen haien jarrera, zer espero duzuen haiengandik, edo nola animatzen dituzuen indarkeria, komunikazioa, gorputz-aldaketak eta beren sexualitateari edo harremanei buruzko mezuak eta abar kudeatzera

Horrek guztiak zer zerikusi du zaintzen Pedagogiarekin? Dena.

Historikoki, emakumeek egin dituzte zaintza-lanak. Kapitalismo heteropatriarkalak ikusezin bihurtu ditu zeregin horiek, emakumeak egiten dituelako, eta ez du ordainsaririk ematen zeregin horien truke, merkatuan langile produktiboak izateko premiak asetzeko.

2 2017ko azarora arte.

3 Matxismoarengatik eraildako emakumeen datuak oso eztabaidagarriak dira. Iturri batzuk indarkeria matxistak familia eremuan kontabilizatzen dituzte, beste batzuk haurren feminizidioak zenbatzen dituzte, konexioa duten familiakoengatik, etb. Gainera, datu hau 2017ko azaroaren 20tik eguneratu gabe geratzen da.
Ministeritzaren datuak ezagutzeko dokumentua berrikusi ahal duzue **"Por una sociedad libre de conflictos de género"**
Dokumentu honetan ordea, **"Feminicidio.net"** dokumentuaren iturria erabiltzen dugu.

4 2017ko otsailean argitaratua **"La brecha salarial en las Comunidades Autónomas".**

5 **INE, Encuesta de uso de tiempo. Empleo del tiempo, conciliación trabajo y familia (2017ko abuztuaren 2an eguneratua)**

Hau da, proposatzen dugun zaintzen Pedagogiak betaurreko moreak erabiltzen ditu. Betaurreko more[6] horiek aukera ematen digute errealitatea genero-kategoriarekin ikusteko, eta gizon-emakumeok egunero pairatzen ditugun milaka ageriko eta isilpeko indarkeriak identifikatzeko eta horiei erronka egiteko. Horrela, geure burua alda dezakegu, eta gizarte deritzon tortilla hau desegin edo beroni buelta eman, berdintasun erreal eta eraginkor baten alde. Izan ere, nola liteke gaur egun, XXI. mendean bete-betean, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna erreala eta eraginkorra ez den gizarte batean bizitzea?

Generoak agintzen du nola izan eta jokatu, nola izan gizon eta nola izan emakume. Eta berau deseraikitzeak aukera emango digu askeagoak eta errealagoak izateko, eta, "izan beharko genukeen" bezalakoak izan behar dugula sentitu beharrean, nahi dugun bezalakoak izateko.

Zaintzen Pedagogian generoa deseraikitzeak honetarako aukera emango digu:

1. Esentzialismoan, hots, emakumeak biologikoki zaintza-lanetatik gertuago eta gizonak lan produktiboekin lotuago daudelako ideian, ez erortzeko.

2. Kontziente izateko gizonak eta emakumeak oso talde heterogeneoak garela, esperientzia, desira eta testuinguru asko baitaude talde bakoitzaren barruan. Ez al duzue inoiz sentitu zeuen burua gehiago identifikatzen duzuela aurkako sexuko norbaitekin?

3. Emakumeak eta haiek egiten dituzten zereginak ikusarazteko eta balioa berriz harrarazteko.

4. Gizonak zaintzen erantzule egiteko, afektiboagoak izatea ahalbidetuz.

Modu bakar batekoak (emakume/gizon, arrazional/emozional, publiko/pribatu) izatera behartzen gaituzten genero-dikotomia horiek hausteak aukera emango digu sentitzeko eta munduan egoteko forma berriak sortzeko. Aukera emango digu benetan sentitzen dugunetik eta izan nahi dugunetik gertuago dauden identitateak sortzeko, gure bizitza erdigunean jartzeko libre izateko, bai eta zainduak izateko eta libreki zaintzeko ere, genero-jazarpenik gabe.

6 Betaurreko moreak Gemma Lienasek "El diario violeta de Carlota" (2013) liburuan erabiltzen duen metafora bat dira. Liburu horretan, hizpide du "mundua ikusteko modu berri bat, emakumeek pairatu beharreko bidegabekeria-, desabantaila- eta gutxiespen-egoerez jabetzeko. Begirada hori balio androzentrikoak, hots, gizonen begiek ontzat jotzen dituzten balioak, zalantzan jarriz lortzen da".

Nola egin dezakegu hori?

Hasteko, teoria eta jardunbide alternatiboen, hala nola teoria eta jardunbide feministen, hausnarketagai eta proposamenez interesa gaitezke. Ezagutza partekatuetan arreta jarriz, ikertuz eta irakurriz. Bideari ekiten diogunok, gogoratu ez dugula geure burua gehiegi juzgatu behar, hau hasiera baino ez da eta. Eta gugandik hastea garrantzitsua da. Ez dugu mundua aldatuko, baldin eta geuk aldaketa eragiten ez badugu.

Hona hemen proposamen batzuk, nondik hasi jakiteko:

- Genero-rolak deseraikitzen has gaitezke gure jarreraren bidez. Genero-rolak kulturalak dira, eta, hortaz, alda daitezke. "Izan behar dugula" esaten digutenetik harago joatea eta muga-aldaketa horiek ahalbidetzea eta sostengatzea lagungarri izango zaigu geure burua ahalduntzeko, genero-rolen aldaketen aurrean. Prozesu gogorra da, geure burua "izan behar dugun" horrekin identifikatzen baitugu, baina aldaketara irekiak egoteak aukera emango digu genero-roletatik urruntzeko eta errealitate berriak zabaltzeko, generotik harago.
- Egunero inspiratzen gaituzten emakume borrokalari eta errebelde asko daude. Haien idazkiak irakurtzeak eta haien berri zabaltzeak aukera ematen digu emakumeek historian zehar egindako lana eta gaur egun egiten dutena ikusarazteko. Hauekin has gaitezke: **Isabel Ruiz Ruizen "Mujeres"** ; **Pandora Mirabiliaren ipuinak. Genero eta Komunikazioa; "1325 mujeres tejiendo la paz", emakumeek bakea eraikitzen izan duten eginkizunari buruzkoa, bizitza-istorioen bidez**; edo "**Feminismos Reunidos" tribial feminista**.
- Geure barrua aztertzea, ikusteko ea eguneroko bizitzan generoaren zer alderdik zapaltzen gaituen, zer den gustatzen ez zaiguna, zerk sentiarazten gaituen mendeko edo zerk ahultzen gaituen. Hausnartzea nolakoak izan nahi dugun eta nolakoak garen oso pauso garrantzitsua da. Korapilatsua da, ordea. Emakume taldeetan bila dezakegu babesa, edo genero-rolak zalantzan jartzen ari diren gizon taldeetan. Elkar babestea eta bide hori bakarrik ez egitea garrantzitsua da. Ezagutza, sentimenduak eta bihotzak partekatzea funtsezkoa da bakarrik ez sentitzeko aldaketaren aurrean.
- Elkarri entzutea, elkar sentitzea eta partekatzea. Gure izateko, hitz egiteko eta abarrerako modua inspirazio-iturri izan dadin. Pertsona guztiok

islatuta gaudela sentiarazten gaituen hizkuntza inklusibo bat erabiltzea garrantzitsua da. Hizkuntza zalantzan nola jarri irakastetik has gaitezke.

- Amatasuna/aitatasuna aukera bat da, ez obligazio bat. Ez genituzke pertsonak ama edo aita izateagatik soilik definitu behar. Halaber, hori ez genuke helburu gisa eraiki behar neska-mutilen bizitzan. Aukera hori egiten bada, primeran. Aukera hori egiten ez bada ere, primeran.
- Gogora dezagun gizonek emakumeen gaitasun bera dutela zaintzeko. Bularra ematea eta erditzea kenduta, dena egin dezakete. Garrantzitsua da irakastea zaintzak gizon-emakumeen komunitatearen erantzukizuna direla. Erantzunkidetasuna, zaintzen erantzukizun banatua, funtsezkoa da. Erantzunkidetasuna ez da laguntzea; erantzukizunen banaketa justua geure egitea da. Gure erantzunkidetasuna azter dezakegu, gure eguneroko jarrerez hausnartzearekin batera **"Guía de corresponsabilidad para hombres" gizardatz.es**
- Garrantzitsua da geure burua nahi dugun bezala eta sentitzen dugun bezala eraikitzea. Diferentziak unibertsala izan behar luke. Horregatik, garrantzitsua da diferentzia onartzen irakatsi ahal izatea. Ez genuke isilago hitz egin behar, oihu egin nahi dugunean, eta ez genuke hitz egitera behartuta sentitu behar, hitz egin nahi ez dugunean. Oroz gain, geure burua zaindu behar dugu.
- Gogora dezagun hezteko, laguntza emateko eta gidatzeko beste modu batzuk badaudela. Iker ditzagun jardunbide egokiak. Has gaitezke hezkidetzarekin, Euskal Herriko edo Latinoamerikako jardunbide egokiekin. ZABALDU ESTEKA

Zaintzen Pedagogia eta ekonomia feminista

Se puede crear música, pintura y escultura abstracta,
pero en casa, un amor y un poema no pueden ser abstractos.

Gloria Fuertes

Zuretzat, zer dira zaintza-lanak? Zer da zaintzea: lan bat, enplegu bat edo bokazio bat? Zu zaintzen zaituzte ala zaintzarik behar ez duten horietakoa zara? Ba al dakizu zer den arrasto ekologikoaren kontzeptua? Eta zaintzen arrastoarena? Zer zerikusi du zaintzeak genero-rolekin? Zaintza-kate globalen baten parte al zara? Entzun al duzu ezer ekonomiaren icebergaz? Zaintzea diruz ordaintzen al da? Enplegua sortzen al du? Zaintzeak ekonomia mugitzen al du?

Zaintzen Pedagogiari buruzko prestakuntza bakoitzean, galdera horiek egiten dizkiogu geure buruari InteRedekook. Eta galdera horiek nondik datozen ulertzeko, ekonomia feministatik zergatik edaten dugun ulertu behar dugu.

Ekonomian pentsatzen dugunean, zenbakietan eta finantzetan pentsatzen dugu, ezta? Herrialde bateko ekonomia, BPGd, BEZa, interesak, burtsa, transferentziak, eta abar. Gehienoi mundu bat iruditzen zaigu hori. Baina, ziur asko, denok hitz egin dezakegu etxeko ekonomiaz, ez al da hala? Gertukoagoa da. Ulergarriagoa da.

Ekonomia klasikoaren (horrela esango diogu) helburua baliabide urriak egokiro nola banatu aztertzea izan da, gizakiaren premiak asetzeko. Ekonomiak merkatuak izan ditu ardatz. Merkatuak eta produktiboa den oro (dirua sortzen duen oro). Ekonomiaren ardatza, beraz, diru-aberastasuna sortzen duten merkatuak dira.

Zer gertatzen da, ordea, dirurik sortzen ez duen beste guztiarekin? Ba al dago aztertzen ez den beste zerbait merkatutik kanpo? Lan (enplegu) produktiboa bakarrik aztertzen al da? Zer gertatzen da ugalketa-lanarekin? Enplegu bat duten pertsonak soilik hartzen al dira kontuan? Eta besteen bizitza? Ez al dira kontabilizatzen diruz ordaintzen ez diren lanak? Ez al dira, bada, lanak?

Ekonomia feministak hori guztia birplanteatu du, eta ekonomia ikusteko eta ulertzeko beste modu bat proposatu du, merkatuen interpretazioa soila ez dena. Labur-labur esan dezakegu ekonomia feminista bizitzarako **ekonomia dela eta ez merkaturako ekonomia.** Alegia, **gizartea ulertzen saiatzen da, bi-**

zitza ardatz hartuta, eta kontuan izanda hala lan produktiboa nola ugalketa-lana.

Ikertzen jarraitzeko baliabideak:

La economía feminista - Cristina Carrasco

Economía feminista, poner la vida en el centro

Gure hezkuntza-sistemak ekonomiaren antzera jokatu du, eta, alde horretatik, esan dezakegu gaizki diseinatuta eta zaharkituta dagoela. Etengabe erakutsi digute helburuak memorizazioa eta estandarizazioa direla. Dena den, azken urteetan gaitasunen hezkuntza-sistemarantz egindako aldaketak handitu egin du irakaskuntzaren fokua: memorizazioan soilik egotetik edukiak ere integratzera pasatu da. Hala eta guztiz ere, gaur egungo hezkuntza-ereduak oraindik ere praktikotasun produktiboa du oinarri. Alegia, ekoizten ikastea, hala nola buruz ikasitako ezagutzak, azterketa-erantzunak edo proiektuak. Eskolako lanak, erruz. Sormena eta jakin-mina balioesten ez duten azterketak. Hezkuntza komertzializatzen da, merkatuaren premien arabera. Horrela, hezkuntza-curriculumetik[7] kanpo gelditzen den oro ez da balioesten.

Hezkuntzak, eta, hortaz, hezkuntza-ereduak zaintzaren gizartea sortu beharko luke. Zaintzen Pedagogiatik, zera proposatzen dugu: zaintzaren gizarte bat, antolamendu eta borroka arduratsu gisa ulertuta, non eragiten diguten erabakiak hartzen parte har baitezakegu. Xedea gure kolektiboentzat onuragarriak diren helburuak aurkitzea bada, helburu kolektiboak zehaztu beharko genituzke, eta, horretarako, beharrezkoa da elkartzeko, eztabaidatzeko, analizatzeko eta ahalduntzeko guneak edukitzea.

Hortaz, zaintza kolektiboak emateko moduak bilatu beharko genituzke. Aspaldian, plaza publikoa –agora– zen herritarren elkartzeko eta parte hartze-

7 Hezkuntza-curriculuma, Hezkuntza Ministerioaren arabera, irakaspen bakoitzerako irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuak zehazten dituzten elementuak arautzean datza. Hots, irakaspen eta hezkuntza-etapa bakoitzerako helburuak, gaitasuna, edukiak, metodologia didaktikoa, ikaskuntza-estandar ebaluagarriak eta ebaluazio-irizpideak.
https://www.mecd.gob.es/educacion/mc/lomce/el-curriculo.html



Women´s Workshop, See Red-en kartela (1975),
Kapitalismoa ere etxeko lanen menpe dago.

ko gunea. Gaur egun, plazak merkataritzarako, publizitate-mezuentzako eta zirkulaziorako gune bilakatu dira. Dena den, herritar ahaldundu berriek plazak hartu, eta bileretarako, gizarte-eraldaketarako eta bateratze-lanerako gune bihurtzeko asmoa dute, hots, sareak ehuntzeko eta bizi-eredu arduratsuagoak asmatzeko gune.

Zaintzaren gizartea, beraz, banakook geure burua identifikatzeko modu bat da, zaintzak erdigunean jarriz. Horrek berekin dakar erdiz erdi haustea herritartasunaren nozio bat, banakoak merkatu kapitalistak erdigunean jartzen dituzten gizarteetan identifikatzean datzana.

Ekonomia feministek metafora bat erabiltzen dute ekonomia klasikoak gizartea aztertzeko ahaleginean merkatua nola erdigunean jartzen duen azaltzeko. Langile *txanpinoiez* mintzo dira. Langile horiek egunero agertzen dira lanpostuan, zuzenean agertu ere, txanpinoiak izango balira bezala. Beharrezkoa izango ez balitz bezala hezkuntza jasotzea lanpostuari dagokion lana egiteko eta zaintzak jasotzea jaioberriak direnean edo gaixo daudenean. Ez dute elikagairik behar, ezta lorik ere. Ez dute inoren laguntzarik beharko hiltzen direnean. Langile horiek egunero beren lanpostuan esnatzen diren makinak bezalakoak

Jarduera:

Pintatu txanpinoi bat eta marraztu inguruan zure bizitzan lanean txapinoi baten antzera agertzeko beharrezkoak izan diren gauza guztiak: ikasketak, etxebizitza, dirua, elikadura, eta abar.

Motz gelditu zara. Beraz, erabili orri ugari

dira, eta, horrela, ahaztu, ikusezin bihurtu eta gutxietsi egiten da biziraupenerako funtsezkoa den bizitzaren parte bat, zeinari ugalketa-lan baiteritzogu.

Ekonomia feministak ugalketa-lan horiek hartzen ditu bere arretaren eta proposamenen ardatz gisa. Lan horiek bizitzari eusteko eta giza biziraupenerako beharrezkoak diren arreta eta zaintzen multzoa dira: elikadura, zaintza fisikoak eta osasun-zaintzak, hezkuntza, prestakuntza, gizarte-harremanak, sostengu afektibo eta psikologikoa, eta etxeko guneak eta ondasunak mantentzeko lanak.

Gizartea kategoria (genero) berri horiekin aztertuta, etxeko lanak eta zaintza-lanak agerian jartzen dira, eta dagokien balioa ematen zaie. Gainera, lanaren kontzeptua zalantzan jartzen da. Izan ere, enpleguarekin ez ezik, ordaindu gabeko lanekin ere lotzen da.

Jarduera:


Marraztu berri duzun orrian, bereizi bi kolorerekin nagusiki emakumeek egiten dituzten lanak edo jarduerak eta nagusiki gizonek egiten dituztenak. Zein da kolore nagusia orrian?

Ikuspegi horretatik, zaintzen Pedagogiak pertsonaren eta beronen garapenaren aldeko apustua egiten du. Bai eta irudimenaren, bizipen-ikaskuntzaren eta ikaskuntza esanguratsuaren, heziketa emozionala lantzearen, pertsonalizazioaren eta banakoen premiez arduratzearen aldeko apustua ere. Hazkuntza ez du enplegu bat lortzearekin lotzen, baizik eta giza garapenarekin. Memorizazioa arrazoimenaren gainetik ez jartzea hitzartzen du, pentsamendu autonomo eta kritikoa sortzeko. Dena den, ahaztu gabe memoria ezinbestekoa dela demokra-

Ikertzen jarraitzeko baliabideak:

Zaintza-lanak eginez lantzen diren abileziei buruzko bideoa
“Ser madre es un plus”.

Bideoa. Munduko lan zailenerako elkarrizketa
“el trabajo más difícil del mundo”.



Patrizio Ortiziren ilustrazioa, Etxeko lanak eta 189 Hizarmena
(Udare eta sagarrekin azaldua) en www.elchamuco.com.mx

ziarako, justizia sozial historikorako eta garapen ebolutiborako. Batik bat emakumeen eta talde minoritarioen memoria.

Ekonomia feministak aztergai du munduko ekonomiaren iraunkortasunean emakumeek duten funtsezko zeregina. Emakumeek, historikoki, ugalketa-lan guztiak egin dituzte. Eta lan horiek ezkutatu egin dira, eta, komertzializatu egin direnean, esplotatu egin dira.

Ikertzen jarraitzeko baliabideak:

Cadena Ser-eko elkarrizketa – 100.000 sinadura entregatu dituzte, etxeko langileen eskubideak aldarrikatzeko

Jarduera:

Irakurri, artikulu hau **“Porque sin nosotras no se mueve el mundo”** eta ikertu nor diren etxeko lurraldea eta zein diren etxeko langileen eskubideak.

Hemendik has zaitezke: **Emakunderen txostena: “Euskal Autonomia Erkidegoan zaintza eta etxeko lanetan dabiltzan emakume etorkinen diskriminazio anitza”**



Kanpaina: Berdintasunaren Aldeko Aitaren Eguna. Plataforma por Permisos Iguales e Intransferibles de nacimiento y adopción. PPiiNA (www.igualeseintransferibles.org)

Historian emakumeek egindako lana aintzatestea eta emakumeek gizartean benetan eta eraginkortasunez parte hartzearen alde borrokatzea beharrezkoa da mundu justu bat sortzeko; haien eskubideak berdin gisa eskuratzea funtsezkoa da, eta ekintza ez diskriminatzaileen bidez txikitatik berdintasunean hezten hastea ezinbestekoa da.

Ekintza-jardunbide egokiak:

REAS. Ekonomia alternatibo eta solidarioen sarea.

“Manda Gori-Gori” Hazkuntza partekatuko taldea.

“Euskal Herriko ekonomia feministako eskolen topaketa” Mundu Bat Mesoamericanas en resistencia

Era berean, sexuaren araberako lanaren banaketa aztertu eta aldarrikatu behar da. *Ezagutzen al duzu kasuren bat, non lan beragatik desberdin kobratzen baita? Ezagutzen al duzu arloren bat, non gehiengoa emakumezkoa edo gizonezkoa baita? Ezagutzen al duzu kasuren bat, non gehiengoa emakumezkoa izan arren enpresako edo erakundeko zuzendaritza-karguetan gizonak baitaude?*

Ikertzen jarraitzeko baliabideak:

"Sostenibilidad de la Vida. Aportaciones desde la Economía Solidaria, Feminista y Ecológica".

Lanak ez genituzke baloratu behar irizpidetzat hartuta nagusiki nork egiten dituzten, gizonek edo emakumeek. Halaber, lan maskulinizatuak ez genituzke lan feminizatuak baino gehiago balioetsi behar. Ingeniari baten lana ez da gizonezko edo emakumezko erizain baten lana baino garrantzitsuagoa. Kontura gaitezen zaintza-lana, borondatezko lana, ere errespetatzea merezi duen lana dela. Lan ordaindu batek ez du zoriontasuna ematen; ez du zoriontasuna bermatzen. Bizitzako helburuek ez lukete lan ordaindu bat izan behar xedetzat. Gutxienez, ez genuke hezi behar lan ordaindu bat lortzeak zoriontasuna bermatuko baligu bezala, hori zintzo ez jokatzea bailitzateke.

Ekonomia feministak lanaren mende ez dauden politika publiko unibertsal batzuk proposatzen ditu, desparekotasun-egoera konpontzen lagunduko dutenak. Azpimarratzekoa da **administrazioek eta erakundeek zaintzen arloan duten erantzunkidetasuna**. Bizitza zaintzea ez da emakumeen eginkizuna soilik: gizonena, administrazioena eta enpresena ere bada. Gizarte osoarena da. Zaintza errazten duten politika publikoak eskatzea funtsezkoa da. **Zaintzarako eskubidea** da zaintzen Pedagogiatik proposatzen duguna.

Zaintzarako eskubidea eskubide unibertsal eta ez partikular gisa. Zaintza, gaur egun, familien oinarrizko erantzukizun gisa hartzen da; hau da, eremu pribatuan kudeatu beharreko erantzukizun gisa. Dena den, gaur egun, erdi-mailako klaseko familiek atzerritarrak kontratatzen dituzte (nagusiki emakumeak), zaintza horiek eman diezazkieten. Hortaz, zaintzarako eskubidea zaintza hori ordaindu dezakeen gutxiengo baten esku gelditzen da. Zaintzen Pedagogiaren ikuspegitik, zaintzarako eskubideaz ari garenean, zaintzarako eskubidea bizitzarako eskubidea bezala sustatzeko premiaz ari gara.

Jarduera:

Osatu taula hau aste honetako egun batean –esaterako, ostiralean– egin dituzun ekintza guztiekin. Bereizi, bi zutabetan, ordaindutako eginkizunak eta ordainsaririk gabekoak. Ekintza bakoitza egiten zenbat denbora igaro duzun jarri behar duzu. Lagungarri gisa, adibide batzuk emango dizkizugu:

Ordainsaririk gabeko lana	Orduen kopurua	Ordaindutako lana	Orduen kopurua
Arropa-garbigailua jarri		*Enplegua*	
Seme-alabei eskolako lanak egiten lagundu			
Janaria prestatu			
Aita zaindu			
Baratzean lan egin			
Auzoko elkartean boluntario gisa aritu			
Lagunekin irten			
Asteko erosketak egin			

Taula osatu ondoren, erantzun bi galdera hauei:

Zenbat ordu pasatu dituzu guztira ordainsaririk gabeko lanetan (boluntario-lanetan, zaintza-lanetan...)?

Eta zenbat ordu ordaindutako lanean (enpleguan)?

Hausnartu emaitzari buruz. Zurekin batera bizi den pertsona batekin egin dezakezu jarduera hau, eta emaitzak konparatu eta komentatu.

Horrelako sistema batean bizitza defendatzeak zera suposatzen du: aukera ematea bizitza bere hiru dimentsioetan –fisikoa, psikikoa eta soziala– garatzeko, eta, horrenbestez, gizaki bakoitzaren duintasuna aitortzeko. Duintasun hori gizaki ororen eskubide eta betebehar gisa eratu behar da. Hortaz, gizaki guztiek, emakumeek nahiz gizonek, dute zainduak izateko eta zaintzeko eskubidea: oinarrizko premiak (elikadura, babesa eta ikaskuntza soziala) asetzeko ez ezik, "nor naizen eta niretzat zer gauza diren garrantzitsuak" ulertzeko ere bai (Vázquez, 2010). Ikuspegi horretatik, uste dugu estatuak izan behar duela politika publikoen bidez laguntzen eta *bermatzen* duena errealitate hori gauzatzea.

Berdintasunaren alde lan egitea zaintza-lanak aitortzea eta balioestea da. Historikoki zaintza-lanak emakumeek egin dituztela aitortzea eta gainerako gizarte-eragileen erantzunkidetasunaren alde borroka egitea.

Zaintzaren pedagogiak pertsonen hezkuntza integrala proposatzen du, bestelako hezkuntza bat abiapuntutzat hartuta, bizipenetan eta sormenean oinarritua, askoz malgutasun handiagokoa eta askotarikoa. Eta autonomia handiagoarekin irakasle edo hezitzaileentzat, eta hezkuntza emozional hobearekin profesionalentzat, banako bakoitzak bere erritmoa eta ikaskuntza-prozesua duela ulertzeko.

Ekintza-jardunbide egokiak:

Aldaketa egingarria dela erakusten diguten adibide polit batzuk **Amara Berriko** hezkuntza-proiektuak dira

Bai eta hezkuntza motel edo barraskiloaren pedagogiarenak ere, non ikasleen erritmoa errespetatzen baita. Bideoa ikusi: **"Luces y sombras sobre la educación transformadora"**

Hori guztia bitarteko materialetan eta giza bitartekoetan inbertsio handiagoak eginez lor daiteke, bai eta hezitzaileei/laguntzaileei etengabe prestakuntza emanez ere harremanei, gizarte-trebetasunei, mundu mailako gizarte- eta ingurumen-sentsibilitateari, etxea kudeatzeko gaitasunari eta abarri buruz.

Nola egin dezakegu hori?

Pertsonak ez gara lurretik irteten, magiaz bezala; ez gara azetatik irteten[8]. Emakumeen sabeletik jaiotzen gara. Txikitan, zaindu eta elikatu egiten gaituzte, eta familietan eta komunitate taldeetan sozializatzen gara. Egia esan, pertsona guztiak interdependenteak gara bizitza osoan zehar. Interdependentzia-harreman horrek elkarrekikotasunaren ondorio izan beharko luke, hots, besteengan gugan bezala pentsatzen hastearen ondorio, osotasun baten parte baikara. Sistema ekonomiko berriak oinarri hauek izan behar ditu: genero-berdintasuna bermatzea, giza eskubideak errespetatzea eta natura gure gizartearen barruan partaide gisa onartzea.

"Revolución de los Cuidados para ti y para mí" irakurgaia lagungarri izan dakiguke.

Hona hemen galdera batzuk, hausnarrarazten digutenak eta nondik hasi jakiteko arrastoak ematen dizkigutenak:

- Boluntario-lana egin al dezakezu zure inguruko lekuren batean? Ikasleei behar gorrian daudenen errealitateen berri izaten lagundu diezaiekezu?
- Ba al dago zure inguruan zaintza-lanetan aritzen den pertsonarik? Zer baldintzatan? Nork zaintzen eta babesten ditu haien eskubideak? Egin al dezakezu zerbait, horri dagokionez?
- Nola baloratzen duzu emakumeen lana? Zer gertatzen zaizu lan hori egin behar duzunean? Nola itzul diezaiekegu duintasuna? Izena emanez has gaitezke: lan bat da. Zenbat denbora hartzen du? Zer trebetasun behar dira lan hori egiteko?
- Zer lotura dago zaintzen Pedagogiaren eta indarkeria matxistaren prebentzioaren artean? Nahikoa dela uste al duzu? Ikertu beste pedagogia alternatibo batzuei buruz.
- Zer taldetako kide zara? Zer gune edo jarduera kolektibotan hartzen duzu parte? Garrantzitsuak direla uste al duzu? Zuretzat, zer harreman dira garrantzitsuak?

8 "El hada de las coles" de Alice Guy (1896). Ipuin tradizional frantsesa.

Zaintzen Pedagogia eta ekofeminismoa

–Haurrok, gaur programatzen ikasiko dugu!
Garrantzitsua da etorkizunean aurrera egiteko.
–Irakasle, horren ondoren, ikas dezakegu nola bizirik iraun ekosistemaren gainbehera, itsas mailaren gorakada eta horrek dakarren agitazio geopolitikoa, gatazka armatuak, orientazio politikoen polarizazio gero eta muturrekoagoa eta gizadiaren baliabide-gose aseezina direla-eta mehatxupean dagoen zibilizazio batean?

Nitrozac & Snaggy

Gaur egun, jakin dezakegu sakelako telefono bat erosteak berekin dakarrela Kongoko Errepublika Demokratikoan haurrak lanerako esplotatzen jarraitzea, palma-olioarekin egindako galletak egiteko ehunka hektarea moztu behar izan direla Hego Amerikan, eta jean merke batzuk izateko ezinbestekoa dela emakumeak esplotatzea Indiako maquiletan. Nahiz eta horiek munduan dauden arazo ugarien adibide batzuk bakarrik izan, ez dugu beti arazoen berri, edo ez dugu beti arazoen berri jakin nahi.



Emilie Henry Gauvreyren aipamena

Ikertzen jarraitzeko baliabideak:

"La crisis de refugiados contada para niños/as" ACNUR.

Mundu global batean bizi gara, non gure ekintzek ondorioak baitituzte. Ez beti gure inguruan. Gehienetan, bizi garen lekutik urrun. Tximeleta-efektuaz ari gara: askotan ez dakigu produktu bat erostearen ondorioak noraino iristen diren, hala naturan, nola pertsonengan. Inoiz ez dugu birplanteatzen produktu bat nola iritsi den supermerkatura. Eta normala da: inork ez digu inoiz esan galde eta iker dezakegun zerbait dela.

Zaintzen Pedagogiak **herritartasun kritiko eta globala** sortuko duen hezkuntza baten alde egiten du. Herritartasun terminoak analisi kritiko eta eraikitzailerako irizpideak dituzten subjektu eskubidedunei egiten die erreferentzia; elkartasuna erantzunkidetasun gisa ulertzen duten pertsona ahaldunduei. Guztiok planeta-kontzientzia izatea eskatzen du horrek, helburu kolektibo gisa bizia eta bere iraunkortasuna sustatzea izango dituena. Herritartasun globalak pertsona guztiak ahalduntzea eskatzen du, eta pertsona guztiak kontuan hartzea, justiziaren sustapenean eta txirotasunaren aurkako borrokan benetan parte hartzeko.

Horren harira, zaintzen Pedagogiaren bidez, pertsonak zer egoeratan bizi diren jabetzea nahi dugu, ikuspegi kritiko bat izatearekin batera. Horretarako, beharrezkoa da hausnartzeko eta norberaren pentsamendua garatzeko guneak sortzea.

Ikertzen jarraitzeko baliabideak:

Irakasle kurioso guztiek hezkuntzaren inguruko 35 TED txarla hauek ikusi beharko lukete.

Educación para el Desarrollo y Ciudadanía Global (EpDCG). Guía para su integración en currículum educativo

Hainbat hamarkadaz geroztik, natura ondasun negoziagarri eta finantza-espekulazioko objektu bihurtu dugu. Lurralde askotan, gaur egun natura-baliabideak finantza-aktiboak baino ez dira bilakatu enpresa multinazionalentzat. Gainera, zaintza-lanak kanpora ateratzeko joera handiagoa dago.



Ezkerretik eskubira, goitik behera: 1.-Nekazaritza formazioa. Titichachi, Bolivia; InteRed. 2.-Arrantza.Bicol-Sorsogon, Filipinak. InteRed; 3.- Lurra ez da saltzen, defendatzen da

Dokumentu honen lehen moduluan aipatu dugun bezala, naturaren ongizatea lehenetsi gabe egin ditugun ekintza horiek guztiek orain arte inoiz ikusi ez dugun krisi ekologiko baten aurrean egotera eraman gaituzte. Eta ongizate kolektiboa lehenetsi ez dugunez eta gehiago arduratu garenez ekoizpen-lanez ugalketa-lanez baino, zaintzen krisi batera iritsi gara. Krisi horren aurrean, gizarte-mugimendu askotan hainbat proposamen teoriko eta praktiko sortu dira, gure ekintzez hausnartzera bultzatu gaituztenak.

Ekofeminismoa feminismoaren eta ekologismoaren kezken eta aldarrikapenen elkargune gisa sortu zen. Bi ikuspegi kritiko horiek batzeak oso eremu aberats bat sortu zuen. Bi mugimendu horien artean lotura asko daudenez, esan dezakegu ez dagoela ekofeminismo bakar bat, baizik eta korronte ekofeminista ugari. Lurralde bakoitzak ekofeminismoaren ideia batzuk bereganatu zituen, eta ideia horiek bere pentsamenduei erantsi zizkien. Horregatik, aldeak daude haien artean.

Ekintza-jardunbide egokiak:

Red nacional de mujeres en defensa de la madre tierra.

Markina-Xemeingo Eskola Publikoa.

Red de patios inclusivos y sostenibles.

Dena den, denek antzeko arrazoiak aipatzen dituzte elkartze hori azaltzeko. Denek bat egiten dute aukerak bilatzen dituztelako **justizia ekologikorako, ingurumen-iraunkortasunerako, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunerako, giza garapenerako eta naturarekiko enpatia eta errespeturako**, eta errotikako kritika bat egiten diotelako gaur egungo "garapen" ereduari. Baso-eskolaren pedagogia hezkuntza-proposamen polit bat da, non naturarekiko lotura funtsezkoa baita eta naturarekin bizitzeak haren bizi-zikloa ulertzen laguntzen baitu. Zaintzen Pedagogian, naturarekiko lotura hausnarketagaitzat hartu eta hobetu behar dugula jotzen dugu, eta, horretarako, garrantzitsua da arretaz aztertzea gure eguneroko ekintzek nola kaltetu dezaketen natura, bai eta natura babesteko eta ingurumena zaintzeko ekintza txikiak abian jartzea ere. Lurra ez da daukagun ondasun bat; aitzitik, gainerako izaki bizidunekin partekatzen dugun ondasun bat da. Ondasun horren mende gaude, eta gure erantzukizuna da hura zaintzea.

Jarduera:

Entzun Yayo Herreo Lopezen **elkarrizketa** hau eta hausnartu horren inguruan

Ikusi sukaldeko armairuan zer produktu dituzun, eta ikertu nondik datozen

"**La vuelta al mundo de un forro de polar rojo**" **liburuan oinarritutako proiektua**.

Ekofeminismoaren ikuspegitik egindako aldarrikapenek zerikusi handia dute egindako ibilbidearekin. Ekologia politikarekin lotuta dagoenez, ekofeminismoak natura-baliabideei dagokienez kostu eta etekinen banaketa desorekatua salatu du, eta desoreka hori agerian jartzen lagundu du. Esate baterako, papera sortzeko zelulosa ateratzeak eragin dezakeen kostua, etekinekin alderatuta. Maiz, ingurumen-kostua etekinak halako hiru da.

Ikertzen jarraitzeko baliabideak:

"Actúa con cuidados, transforma la realidad" InteRed.

"La Cesta de Caperucita Roja" Zentzuz kontsumitu.

Adar ekofeminista espiritualenak ohartarazi du natura-ingurunea suntsitzeak zer-nolako kaltea eragin dien emakume askori, eta agerian jarri ditu emakumeak protagonista diren borroka ugariak. Garrantzitsua da emakumeen borroken berri izatea, eta jakitea gizarte-aldarrikapenen bidez nola lortu duten politikak, ekintzak eta abar aldatzea. Aktibismoaren lorpenez jabetzeak pentsamendu positibo bat eragiten du (aldaketa gerta daitekeela sinestera garamatza), aldatzeko beldurraren aurrean. Garrantzitsua da aukeraz eta positibismoz betetako pentsamendu bat sortzea, politika suntsitzaileen eta bidegabekerien aurrean. Munduan kontziente eta aktibo egoteko modu bat da hori.

Ildo konstruktibistak agerian jarri ditu industria kimikoen eta gizarte kontsumitzaile eta produktoreen eragin negatiboak, botere-harremanen, gizarte-klaseen arteko harremanen eta arraza-harremanen ondorio direnak. Gauza guztiek zergati bat dutela ulertzea garrantzitsua da. Ez dira unean uneko ekintzak edo banakoen interesak soilik: gizarte-egitura bat dago atzean, ekintza horiek balioetsiak eta baimenduak izan daitezen. Gure eguneroko ekintza txikiekin, bidegabekeriak salatuz, botere-egitura hori eralda dezakegu, eta jokatzeko eta elkarrekin erlazionatzeko modu demokratiko eta horizontalagoak sortu, eta berdintasunezko partaidetza guneak eratu.


Ikertzen jarraitzeko baliabideak:

Unitate didaktikoa. “La soberanía alimentaria en el mundo”.

Baina zergatik batu ziren ekologismoa eta feminismoa? Zergatik doitzen dira hain ongi?

Ekofeminismo guztiak bat datoz: emakumeak gizonen mende jartzea eta natura esplotatzea txanponaren bi aldeak dira, eta logika amankomun bat dute: menderatzearen eta bizia gutxiestearen logika. Kapitalismo patriarkalak hainbat motatako estrategiak erabili ditu emakumea eta natura menderatzeko eta ikusezin bihurtzeko. Horregatik, **korronte ekofeministek sakon eraldatu nahi dute pertsonok nola erlazionatzen garen gure artean eta naturarekin, zapalketa-, inposizio- eta jabetze-formak lankidetzarako, elkarrekikotasunerako, errukirako eta elkarri laguntzeko formulekin ordezkatuz** (Herrero, Cembranos eta Pascual, InteReden aipatuak, 2018).

Zapalkuntzaren teoriak azaltzen digu nola jarri zen gizakia (gizaki hori zuria, gizonezkoa eta heterosexuala zen, ez halabeharrez) planetaren, biziaren erdian. Bere premiak gainerako izaki bizidunen eta munduaren premien gainetik jarriz. Gauza guztiak ulertzeko neurri estandar gisa, gizon hori jarri zen. Eta horrela eraiki zen antropozentrismo deritzogun menderatze-sistema.



U de Otto C. Scharmer eta Katrin Käuferren teorian oinarritutako irudia

Animaliak gizakien premiak asetzeko zeuden; natura gizonentzat ekoizteko zegoen; baliabide mugatuak ateratzea ez zen arazo bat, eta emakumeak, jakina, gizonak zerbitzatzeko zeuden, nahiz eta gizonak baino proaktiboagoak izan gizonak zaintzen. Emakumeak gizartearen objektu izan ziren, ez subjektu. Dena zegoen gizonen mende. Dena.

Geure burua naturaren partetzat eta ez haren jabetzat jotzea da zaintzen Pedagogiaren oinarria. Gu naturaren zaintzaileak soilik gara, ez haren jabeak. Gizartea ulertzeko modua EGOtik EKOra aldatzeak orobat aldatuko ditu gure eguneroko ekintzak. Ezin dugu berdintasunezko mundu bat eratu, baldin eta gainerako izaki bizidunak (gizakiak eta gizaki ez direnak) "besteak" badira, "mendean" daudenak. Izaki bizidun guztiek dute bakean bizitzeko eskubidea, eta guk berma dezakegu eskubide hori. Ñabardura horrekin, bakerako eta indarkeriarik ezerako hezkuntzak zaintzen Pedagogiaren ikuspegitik justuagoa eta berdintasunezkoagoa den mundu bat eraikitzen laguntzen digu.

Jarduera:

Aukeratu ongi ezagutzen duzun lehia-jolas bat, erraza eta arau gutxikoa (harrapaketan, esaterako, eta, taldean bazaudete, zailxeago bat), eta saiatu jolas kooperatibo bihurtzen. Animo!

Adibide bat: **Aulki-dantza**.

Bertsio lehiakorra: aulkiak jartzen dira, eta partaideak haien inguruan jartzen dira (partaideen kopurua baino aulki bat gutxiago egongo da). Jolasa gidatzen duenak musika jartzen du, eta, orduan, partaideak aulkien inguruan biraka hasten dira. Musika itzaltzen denean, partaideek aulki batean eseri behar dute (aulki bakoitzean partaide bat bakarrik eser daiteke). Aulkirik gabe gelditzen dena jolasetik kanpo gelditzen da. Aulki bat kentzen da, eta jolasak aurrera jarraitzen du. Harik eta pertsona bat gelditzen den arte. Huraxe izango da irabazlea.

Bertsio kooperatiboa: modu berean hasten da, baina musika gelditzen denean, denek igo behar dute aulki gainera, eta inor ezin da gelditu oinak lurrean dituela. Alegia, partaide guztien artean lortu behar dute inor ez gelditzea oinak lurrean dituela. Nola lortuko dute hori? Probatu nahi duzue? Musika eteten den bakoitzean aulki bat kentzen da, eta partaideak geldi-

tzen diren aulkietan igotzea ezinezkoa denean amaitzen da jolasa. Nork irabaziko du? Partaide guztiek.

Jolas guztiak alda daitezke? Zergatik da dibertigarria lehiatzea? Zergatik kooperatu beharko genuke? Ikertu jolas kooperatiboei buruz. Honekin has zaitezkete: **"Etenaldia"**. Jolas kooperatiboa, eraldaketarako tresna gisa.

Gainera, gizartea ulertzeko EGO moduak oinarritzat du pentsamendu duala. Aurkakoak eta hierarkikoak diren pareen pentsamendua, dokumentu honetan aurkezten diren genero-dikotomien pentsamendua, non pareetako bat (lehenengoa) bestearen (bigarrenaren) mendekotzat hartzen baita. Esate baterako: emakumea eta gizona; natura eta arrazoia; pribatua eta publikoa; ugalketa eta ekoizpena.

Itxuraz antzekoagoak diren taldetan zatitzen bagara etengabe, inoiz ez dugu ezagutuko beste identitate- edo kidetza-formarik. Beti emakume eta gizon gisa zatitzen bagaituzte, irudituko zaigu emakume izateagatik antz handiagoa dugula beste emakume batekin beste gizon batekin baino. Eta horrela, maiz, beste errealitate batzuekin erlazionatzeko aukera galduko dugu. Bestelako gune batzuk sortuta, non zatiketak zorizkoak izango baitira eta beti ez baikara pertsona berberekin erlazionatuko, aberastu egingo da munduaz dugun ikuspegia, eta "besteekiko" errespetu handiagoz jokatzera bultzatuko gaitu.

Baliabidea:

"Lucha ama a Libertad" ipuinak Boliviako Mujeres Creando kolektibo feministaren esperientzia du inspirazio-iturri. Ipuinean, protagonista, Lucha, ahaldundu egiten da, kolektiboa ezagutzean eta harekin bat egitean. Istorioa bikote barruko genero-indarkeriako egoera bati buruzkoa da. Protagonistak bizi duen tratu txarrezko harremana gaindditzea lortzen du, taldearen eta familiaren laguntzari eta sormen-lanari esker. Ipuinarekin batera, "Querernos bien" kanta aurkezten da.

Querernos bien
(BSO Cuento Lucha ama a Libertad)

Es que no ves que me gusta que me hables,
que me escuches
que a mí me gusta entenderte

y compartir lo que queramos vivir
Sin olvidar que uno más uno son tres
tú y yo y lo que hagamos juntos después
Tu vida de la mano de la mía,
ninguna va encima
nuestros sueños no contaminan, no

Vamos a querernos bien, muy bien
vamos a querernos bien

Alégrate por mis alegrías
también las comparto con mis amigas
Yo, celebraré tus fiestas
tus penas sentiré como mías
Pero no, no, no nos gritemos
si no estamos a gusto mejor hablemos
Si, sí, quiéreme como soy
mírame, caminando voy

Escríbelo en la pared,
estamos juntos porque estamos bien
Porque somos libres para escoger
con quién queremos permanecer
No estás solo tú en mi vida

eso es lo mejor, que no te dé fatiga
Piénsalo, cuándo más felices estemos,
mucho más cariño nos daremos

Pero no, no, no nos gritemos
si no estamos a gusto mejor hablemos
si, sí, quiéreme como soy
mírame, caminando voy
vamos a querernos bien, muy bien
vamos a querernos bien (bis)

Menderatzearen teoriaren eta dualtasunaren baturak sustrai amankomun batzuk ezartzen ditu emakumeek sistema patriarkaletan pairatzen duten menderatzearen eta Ekialdeko pentsamoldean naturak pairatzen duen menderatzearen artean. Horrela, pentsamendu ekologikoa eta feminista primeran datoz bat.

Planeta eta bertan bizi diren izaki bizidunak gu gizakiok bezain garrantzitsuak dira. Horrek bizitza bere bertute guzietan ezagutu eta defendatu behar dugula inplikatzen du.

Eremu landatarrenetan, askoz errazagoa da gizakiak ez diren izaki bizidunekin harremanetan egotea. Horregatik, natura-inguruneetan jarduerak egitea garrantzitsua da zer dibertsitate dagoen jakiteko. Esaterako, basoan, baina bai eta baratzeetan eta hondartzan ere. Hirietan, parkeak dira natura-ingurune gertukoenak

Jarduera:

Ikuspegi ekofeministatik, nola ikusten da Galizian suteekin gertatzen ari dena, sute horiek eragiten dituen logikarekin kontrastatuz? Badago landa-ingurunea bizitzeko modu bat suntsipena eta beldurra eragiten ari dena.

Analisia:

1. **Deskribatu** zer ideia-sekuentziaren ondorio diren suteak. Nork antolatu ditu? Nola? Zertarako? Nolakoa izan da exekuzioa? Zer ondorio izan ditu?
2. **Adierazi**, sentimenduei eta emozioei leku eginez, analisi honek zer eragiten duen gugan, jatorrizko ideien balioa edo egokitasuna juzgatu gabe.
3. **Planteatu** bestelako ideia-sekuentzia bat, ikuspegi ekofeministatik. Zer beste lehentasun agertzen dira? Nola erantzun diezaiokegu egoerari? Zer egin dezakegu gure lantokitik?

Ekofeminismoak bere kritikan zera planteatzen du: Ekialdeko gizarteek, beren kultura-eredutik eta ekonomia-sistema kapitalistaren sorreratik abiatuta, bizi-ikuskera bat eraiki dutela, sistematikoki gerra deklaratu diena gorputzei eta lurraldeei. **Biziari berari gerra deklaratu dion bizi-sistema bat da**.

Proposamen bideragarriak eta jasangarriak sortzeko, ekofeminismoak biziari benetan eusten dioten oinarri materialak zein diren aztertzea proposatzen du.

Lehenik eta behin, konturatzen da **naturaren guztiz mende gauden izakiak** garela. Alegia, egiten dugun jardueretako bakar bat ere ezingo genuke egin erabiltzen ditugun baliabideetako asko naturatik irtengo ez balira. Pentsatu, mesedez, ea dauzkazuen ondasunen artean badagoen naturatik irten ez den baten bat. Bururatzen al zaizue baten bat? Egin al dezakezue otordu bat lurretik ez datozen produktuekin soilik? Zein izango lirateke produktu horiek?

Bigarrenik, aztertzen du naturaren mende gauden izakiak izateaz gain nola **guztiz elkarren mende gauden izakiak** garen. Izan ere, une batez pentsatu besterik ez dugu egin behar konturatzeko gizakiaren bizitza ezin dela ulertu beste gizaki baten laguntzarik gabe. Zein izan da beste pertsona baten laguntza behar izan duzun azken aldia? Zein izan da norbaiti lagundu diozun

azken aldia? Ba al duzu etxean zure zaintzak behar dituen senideren bat? Noiz izan da lagun bati norabait lagundu diozun azken aldia?

Garapen jasangarriaren alde lan egiteak zera esan nahi du: gure munduko hiru eremuak –soziala, ekonomikoa eta ingurumenarekin lotutakoa– ikusaraztea eta berdintasunezko bizigune amankomun bat sortzea jardunbide etiko bideragarriekin.

Ekofeminismoak **desagerrarazi egin nahi ditu indarkeria, etnozentrismoa eta sexismoa**, beste bidegabekeria batzuen artean. Halaber, orain arte femeninotzat jotako balioen nagusitasuna aldarrikatu nahi du, balio horiek giza balioak baitira, zaintzaren balioak. Ildo horretatik, ekojustiziaren, pobreen ekologismo deritzonaren eskaerei erantzun nahi die, eta bat egiten du garapen txarra salatzen dutenekin eta Ongi Bizitzearekin eta Deshazkuntzarekin.

Testuinguru horretan, badaude talde eta mugimendu jakin batzuk, krisia beste ikuspegi batetik konpontzen saiatzen ari direnak. Proposamen horiek gaur egungo garapen-eredutik urrundu dira. **Komunitate intentzionalek** sistema alternatibo bat osatzen dute, eskala txikiko komunitate-bizipenak proposatzen dituena, jasangarritasuna tokian-tokian eraikitzen saiatuz, naturarekin harmonian. Komunitate horientzat, gizakien eta beste bizi-formen arteko berdintasuna oso garrantzitsua da. Hori dela eta, gizakiak ez dira natura menderatzen saiatzen; aitzitik, naturan beren lekua aurkitzen saiatzen dira. Bertan bizi diren pertsonek osatutako komunitateak dira, lankidetza-maila handia izateko diseinatuak. Komunitate intentzional bateko kideek ikuspegi sozial, politiko edo espiritual berbera dute; bizimodu alternatibo bera dute, eta erantzukizunak eta baliabideak partekatzen dituzte. Alde horretatik, jardunbide onetako bat etxebizitza-kooperatibak dira.

Ekofeminismoak etorkizun jasangarri bat eraikitzearen alde egiten du, ezagutzak eta bizipenak partekatuz eta etorkizun hobe baterako hobeak diren beste eredu historiko, politiko, etiko, ekonomiko eta kultural batzuk ezagutuz. Horretan datza ekofeminismoak zaintzen Pedagogian duen garrantzia. Prozesu eta proposamen horretan, entzutea funtsezkoa da: nork bere buruari entzuteko gaitasuna, besteari entzuteko gaitasuna eta entzuna eta zaindua izateko itxaropena da benetako komunikazioaren –hots, indarkeriarik gabeko komunikazioaren– oinarria.

Zaintzaren etika –zeina beti hartu izan baita femeninotzat– ingurumena eta pertsonen arteko harremanak zaintzearekin estrapolatzen saiatzen da ekofeminismoa. Harreman horietan emakumeek eta gizonek hartu behar dute parte, berdintasuna eta oreka lortze aldera. Izan ere, natura zaintzea pertsona guztion erantzukizuna da. Emakumeak eta gizonak beharrezkoak dira gure bizitzak erabat garatzeko eta garapen kolektiboa lortzeko. Horregatik, lekuak zaintzeari arreta berezia ematea funtsezkoa da. Izan ere, ingurunea pentsamenduan eta harremanetan eragina duen hizkuntza gisa hartu behar da.

Ekofeminismoak begirada zabaltzen digu gizakiez aparteko mundua eta beronekin dugun harremana balioesteko. Hortaz, balio handiko ikuspegi bat ematen du zaintzen Pedagogian.

Nola egin dezakegu?

Ezaugarri nagusi gisa jasangarritasuna eta zaintza dituen eskema bat eraikitzeko, beharrezkoa da zaintzaren etika eta arrazionaltasuna harreman sozial eta ekonomiko guztietara zabaltzea, bai eta gizakiak naturarekin dituen harremanetara ere.

Hona hemen nondik hasi jakiteko proposamen batzuk:

- Hezkidetza: emakumeen eta gizonen berdintasun erreal eta eraginkorrerako hezkuntzan eragin handien duen proposamenetako bat. Ikertzen jarraitzeko, hemendik has zaitezkete: **Guía de Coeducación. Síntesis sobre la Educación para la Igualdad de oportunidades ente hombres y mujeres**
- Bakerako eta indarkeriarik ezerako hezkuntza. Bakea eta indarkeriarik eza ezinbestekoak dira gure harremanak berdintasunerantz eraldatzeko. Orobat da ezinbestekoa gure ingurune gertukoena eta pertsona gertukoenak zaintzea, eta erlazionatzeko eta gatazkak eraldatzeko beste forma batzuei buruz ikertzea. Geure burua kudeatzen jakitea ere geure burua eta besteak zaintzea da. **Guía de Coeducación. Síntesis sobre la Educación para la Igualdad de oportunidades ente hombres y mujeres**
- Hiri-baratzeetara gerturatzea, edo zure balkoian baratzetxo bat jartzera ausartzea. Gure janaria ekoizten badugu, barazki bakoitza zer garaitakoa den eta nola heltzen den ulertuko dugu. Baratzetxo bat jar al dezakezu lantokian edo boluntario-lanak egiten dituzun tokian? Zer iruditzen elkarrekin barazkiak haztен baditugu eta landareak zaintzen ikasten badugu?
- Zentzuz kontsumitzea, jakinik zer eragin dituen pertsonengan eta naturan erosten duzunak. Produktu ekologikoak **(SARETUZ)** Consumir ecológico **(EHNE)** edo bidezko merkataritzako produktuak **(COMERCIO JUSTO)**, kontsumitzeak langi-

leen eta lurraren eskubideak errespetatzen direla bermatuko du. Zure ustez, ba al du eraginik haurrei ematen diegun janariak? Zure ustez, ba al dago modurik zure inguruan elikadura bertakoagoa, ekologikoagoa eta justuagoa sortzeko?

- Tokian tokikoa erostea, gugandik gertu bizi diren pertsonak ezagutzea eta pertsona horiei ahal dugun neurrian laguntzea. Ba al dago gunerik komunitatean non laguntza eman baitezakezu? Uste al duzu zure komunitateko norbaitek laguntza behar duela?
- Landara, lurrera gerturatzea; ingurunea ezagutzea eta ongi zainduta dagoen jakitea. Uraren zikloari buruz, urtaroei buruz eta abarri buruz ikertzea.
- 5 gakoak: berrerabili, murriztu, konpondu, birziklatu eta erregulatu. Ordena horretan. Ditugun ondasun materialei bigarren aukera bat ematea. Erabilera bakarrekoa den oro saihesten saiatzea. Betetzen al duzue hori? Zuen ustez, egingarriak al dira 5 gako horiek gure hezkuntza-ingurunean? Nola? Bururatzen al zaizu beste gakoren bat? Berreskuratu? Besteren bat?
- Zer ingurumen-arazo dauden eta gure eguneroko ekintzen bidez nola hobetu ditzakegun aztertzea: zuhaitzak landatzea, garraio publikoa erabiltzea, bizikleta, eta abar. Bururatzen al zaizue beste ekintzaren bat?

Zaintzen Pedagogia eta Ongi Bizitzea

Askatasuna nahi baduzu, askatasunez hezi,
elkartasunean eta elkarlanean sinesten baduzu,
elkartasunez eta elkarlanaren bidez hezi,
eta berdintasunezko gizarte baten alde borroka egiten baduzu,
berdintasunean hezi.

Nora Silva

Ongi Bizitzea kritika gisa sortzen da, merkatuak gizarteetan duen zentraltasunaren aurkako **erresistentzia-mugimendu** gisa. Merkatuen zentraltasun horrek (kapitalismoak) arriskuan jartzen du biziaren iraunkortasuna planetan; eragiten ditu berotze globala, kutsadura, ekosistemen narriadura, ingurumen-desoreka, baliabideak ahitzea, biodibertsitatearen galera, eta abar, eta kaltetu egiten du planetak birsortzeko duen gaitasuna. **Baina kalteak ez ditu naturak soilik pairatzen. Gizarteak eta komunitateak ere kalteak pairatzen ditu**.

Kapitalismoak berdintasunik gabe banatzen du aberastasuna, gutxi batzuen artean banatu ere; indibidualizazio eta lehia handiagoa sustatzen du, eta gizarte-desparekotasun handiagoa sortzen du; gizarte-harremanak komertzializatzen ditu, eta pobrezia, injustizia, gerrak eta abar sortzen ditu. Horrela, herritarren parte handi bat oinarrizko eskubiderik gabe gelditzen da, merkatu kapitalistaren engranajeak funtzionatzen jarrai dezan.

Europan, pribilegiatuak izan gara. Izan ere, engranaje horren barruan posizio onean geunden. Horrek ez digu itolarririk sortu behar, baina garrantzitsua da zer posizio dugun eta zer funtzio egiten dugun jakitea, alternatiba errealagoak eraiki ahal izateko.

Modek eta sortzen dizkiguten "premiek" bultzatuta, salgaien eta ondasunen kontsumitzaile hutsak izan gara.

Ikertzen jarraitzeko baliabideak:

Kontsumismoari buruzko unitate didaktikoak. "10 talleres diferentes sobre consumo crítico y responsable" . El Salmón contra corriente

Modako azken oinetakoak, plasmazko telebista, bideo-joko berriena eta abar izateak gure bizitzan zoriontasun-hutsune bat betetzen duela dirudi. Dena den, gauza material baten jabe izateko premia hori arreta handiz eraikita dago, gure bizkar zer sortzen duen konturatu ez gaitezen.

Baina eskualde batzuek aberats izateko zortea izateko, pobretu egin behar izan dute beste eskualde batzuek; hots, Hegoak. Víctor Quilaqueok primeran azaltzen duenez (2018), Hegoa historikoki esplotazio-baldintzen mende egon diren guztien metaforatzat hartzen da. Izaera globaleko kontzeptu bat da. Ez da hegoalde geografikoa, baizik eta Hego globala. Hori da Latinoamerikaren kasua. Han, beste inon baino gehiago pairatu dituzte merkatuen metatzearen, bizia guztiz garatzeko aukerarik ezaren eta gizarte-bermeen atzerakadaren ondorio kaltegarriak. Eta beste inon baino gehiago garatu dira erresistentziak eta borrokak lurraren alde eta uraren ustiapenaren, kutsaduraren, petrolioa ateratzearen, baso-soiltzearen, agroindustrien, agrokimikoen eta abarren aurka. Hain ikusezina egin den Hego horretako aktibismoa ezagutzeak eta haren esperientzien eta borroken berri jakiteak lagundu egiten digu Ipar-Hego pentsamendua hausten.

Borrokak duinak direla, gizarte-hobekuntzak lortzeko mekanismoetako bat direla eta ahotsa eta botoa dugula jakitea funtsezkoa da zaintzen Pedagogian proposatzen dugun zaintzan oinarritutako herritartasunean ahalduntzeko. Funtsezkoa da pentsamendu kritikoa duen herritartasun global bat –hots, zaintzan oinarritutako herritartasun politiko bat– sortzea, aukera emango duena gure eskubideak zapaltzen direnean altxatzeko beharrezkoak diren tresnak izateko.

Jarduera:

Irakurri manifestu hau. Gero, sortu zure manifestua: egitura berari jarraituz eta azpimarratutako hitzak beren horretan utziz, osa ezazu. Zer proposatzen duzu zure bizitzan aldaketarako? Zer lehenesten duzu? Zer proposamen daude bihar bertan bete daitezkeenak? Nondik has gaitezke?

Zure ustez, sor al daiteke manifestu bat zure hezkuntza-eremuan? Zure ustez, ba al dago hezkuntzari kalte egiten ari den politikarik?

Proposamena: Hezkuntza publiko, doako eta kalitatezko baten aldeko manifestua.

EMAKUME INDIGENEN I. GOI-BILERA ETA HERRIALDE INDIGENEN IV. GOI-BILERA KONTINENTALA.

Peru deritzon ABYA YALAko parte honetako komunitate eta herri indigenetatik etorriak, emakume indigenak bildu gara, Punon (Peru) Titikaka aintzira sakratuan garatuko diren gizarte-mugimenduetarako prozesu garrantzitsuenenetan, hots, EMAKUME INDIGENEN I. GOI-BILERAN eta HERRIALDE INDIGENEN IV. GOI-BILERA KONTINENTALEAN, nola parte hartuko dugun planifikatzeko.

Bat eginik Andeetako eta Amazoniako emakume indigenekin, batera ari gara eraikitzen gure agenda, protagonista gisa parte hartzeko, bizia –gure PACHAMAMA eta YACUMAMA– babesteko landu diren proposamenekin, politika neoliberalaren kontra, zeina planeta suntsitzen ari baita eta zeinaren ondorioek jada eragiten baitigute, horren erakusle direlarik ur gezaren eskasia oihaneko erauzketa-jardueren kutsaduragatik, elikagai transgenikoak, eta gure biodibertsitatea suntsitzen duten monolaborantzak, eta, horregatik, ez dugu aintzat hartzen AEBekin egindako Merkataritza Libreko Ituna eta uko egiten diogu Kanadaren eta Europar Batasunaren arteko Merkataritza Libreko Itunari.

Neoliberalismoa krisian dagoen etapa honetan, estatuetako politikek bere-

kin arrastaka daramatzate beren errezeten mende dauden eta autonomiarik eta burujabetzarik ez duten ekonomiak, eta, horren aurrean, eredua aldatzea proposatzen dugu, xedetzat harturik ESTATU PLURINAZIONALAK eraikitzea eta sendotzea, ekonomia solidarioa eta osagarria, kanpo-zorraren berrikuspena eta kontu-ikuspen independentea, eta naturaren, prozesu biotiko naturalaren eta dibertsitate biologikoaren defentsa.

Lehentasun gisa planteatzen dugu gure LURRALDEAK ETA NATURA-BALIABIDEAK babestea, eta berresten dugu naturan oinarritzen dela gure bizitza eta kultura eta naturan garatzen dugula gure ekonomia, maneiatzen ditugula gure elikadura eta osasuna, eta sortzen ditugula barazki-espezie berriak, komunitate barruko onurarako ez ezik gizadiaren onurarako ere. Proposatzen dugu Alan Garcíaren gobernua aintzat ez hartzeko hitzarmenak egitea eta aktiboki parte hartzea herrialdeen desobedientzia- eta altxamendu-prozesuan, eragiten diguten politiken aurrean.

Testuinguru horretan, prestatzen gara, eta prozesu honek ekartzen dizkigun erronkei erantzuten jakingo dugu. Prozesu honetan, emakume indigenek modu aktiboan parte hartuko dugu, gure proposamenak eginez EMAKUME INDIGENEN I. GOI-BILERAN, arbasoengandik datozkigun ekintzak eginez Punon (Peru) TITIKAKA aintzira sakratuan, eta gure ondorioak partekatuz kontinenteko ahizpekin, gure proposamenak HERRIALDE INDIGENEN IV. GOI-BILERA KONTINENTALERA eramango baititugu.

Kontinenteko ahizpak agurtzen eta adoretzen ditugu, zeinak antzeko prozesuak egiten ari baitira beren komunitate, herri eta nazioetan, beren herrialdeen baitan. Prozesu honekin aurrera jarrai dezatela, ahalik eta emakume gehienek parte hartzen dutela berma dezatela eta gure indarra ahuldu dezaketen eztabaidak saihestu ditzatela, hala nola egoitzak beste herrialde batzuetan jartzeko eskaeren kontua.

Dei egiten diegu gizarte-mugimendu ez indigenei, emakumeen elkarteei eta giza eskubideen defendatzaileei prozesuan parte har dezaten. Orobat egiten diegu dei munduko erakunde solidarioei, beren sostengua adieraz dezaten, emakumeek EMAKUME INDIGENEN I. GOI-BILERAN, HERRIALDE INDIGENEN IV. GOI-BILERA KONTINENTALEAN eta HAUR ETA GAZTEEI BURUZKO II. TOPAKETAN parte hartzen dutela bermatze aldera.

Liman, Taulichusco kurakaren sorterrian, 2009ko otsailaren 28an.

EMAKUME INDIGENEN ESKUBIDEEN ALDE... TRANSNAZIONALIK GABEKO LURRALDEEN ALDE, BIZIAREN ALDE, KUTSADURARIK GABEKO URAREN ALDE.

Horrela, Hego globaleko erresistentziek agenda amankomun batzuk eraiki dituzte, **bizia erdigunean jartzean dautzan egitura-aldaketen** aldekoak. Zaintzen Pedagogiak, beraz, zerikusi handia du Hegoaren ikuspegi horrekin, Ongi Bizitzearekin.

Ongi Bizitzea **Andeetako indigenen eta nekazarien komunitateen memoria** berreskuratzetik sortzen da, proposamen gisa eta kapitalismoak giza harremanetan eta ingurumenean dituen ondorioen alternatibak planteatzeko gune gisa.

Ikertzen jarraitzeko baliabideak:

Bideoa. Alberto Acosta: Sumak Kawsay.

Bideoa. Diálogos del Buen Vivir con José Mújica

Ongi Bizitzeak xedetzat du naturaren, gorputzen, ezagutzen eta zaintzen manipulazioa ordezkatzea, balizko etorkizun baten onurarako, zeinaren erdigunea bizia bera izango baita. Proposatzen du "**bizi betea**" bizitzea edo "bizia betetasunean" bizitzea, eta hori "desberdintasunean zoriontsu izatearen" amets kolektibo gisa interpretatzen da (De Souza, 2013).

Baliadibea:

Colores en el viento - Ana Torroja

Te crees señor de todo territorio
la Tierra solo quiere poseer
más toda roca, planta o criatura
viva está, tiene alma es un ser
Tú crees que igual a ti, es todo el mundo
y hablas como un gran conocedor
más sigue las pisadas de un extraño
y mil sorpresas hallarás alrededor
Escuchaste

aullar los lobos a la luna azul
o has visto a un lince sonreír
o unirte a la voz de la montañas
y colores en el viento descubrir
y colores en el viento descubrir
Corramos por veredas en el bosque
probemos de sus frutos el sabor
descubre que riqueza te rodea
sin pensar un instante en su valor.
Hermanos son el río y la lluvia
amigos somos todos, como ves
vivimos muy feliz estando unidos
en un ciclo fraternal que eterno es
Escuchaste
aullar los lobos a la luna azul
o has visto a un lince sonreír
o unirte a la voz de la montañas
y colores en el viento descubrir
y colores en el viento descubrir
Cuan alto el árbol será
si lo cortas hoy, nunca se sabrá
y no oirás aullar los lobos a la luna azul
sea blanca o morena nuestra piel
Todos tenemos que cantar con las montañas
y colores en el viento descubrir
si no entiendes que hay aquí, solo es tierra para ti
sin colores en el viento descubrir

Ongi Bizitzea, beraz, bizia betetasunean da. Ama lurraren, kosmosaren, biziaren eta historiaren zikloekin harmonian eta orekan bizitzen jakitea da. Existentzia forma ororekin orekan. Hain zuzen ere, hori da komunitatearen bidea eta etorkizuna, Ongi Bizitzearen arabera. Berekin dakar, lehenekin eta behin, bizitzen jakitea, eta, gero, elkarrekin bizitzen jakitea. **Ezinezkoa da Ongi Bizitzea, pertsonak gaizki bizi badira edo Ama natura kaltetzen bada**. Ongi Bizitzeak espezie baten narriadura denen narriadura dela ulertzea esan nahi du. Ildo horretatik, Ongi Bizitzearen arabera, funtsezkoa da jabetzea oso baten parte garela eta denok bat garela. Hortaz, Ongi Bizitzeko, funtsezkoa da behar bezala zaintzea geure burua eta taldea, osotasuna, komunitatea eta natura: besteak zaintzea geure burua zaintzea da.

Jarduera:

Zein dira zuretzat ezinbesteko baldintzak –eguneroko ariketa gisa hartuta–, betetasunean bizitzeko? Zure ustez, zer da ongi bizitzea? Zer da ezinbestekoa zure bizitzan ongi bizi ahal izateko?

Horretan pentsatzeko tartetxo bat hartu ondoren, ikertu Ongi Bizitzearen 13 printzipioei buruz.

Zure ustez, ba al du horrek zerikusirik zaintzen Pedagogiarekin? Zure ustez, eguneroko bizitzan egin ahalko zenuke? Eta lan- edo boluntario-arloan? Nola?

Ongi Bizitzeak dena komunitatearen partetzat hartzen du, eta komunitatea gizartetik harago doan unitatetzat jotzen du. Naturak erakusten du dena dagoela elkarrekin lotuta. Alegia, bizitzan, gauza guztiak **etengabeko elkarrekikotasun dinamiko** batez adierazten dira. Ildo horretatik, Ongi Bizitzeak proposatzen duen hezkuntza oso lotuta dago zaintzarako hezkuntzarekin.

Ongi Bizitzea zera eraikitzen saiatzen da: “herritarren bizikidetza modu berri bat, dibertsitatea errespetatuz eta naturarekin harmonian, Ongi Bizitzea, hots, sumak kawsay, lortzeko” (Ekuadorreko Konstituzio Politikoa, 2008). Ongi Bizitzea ongizate-estatua eta garapen konbentzionala baino askoz gehiago da; izan ere, Ongi Bizitzea lortzeak berekin ekarriko luke gizarte berri bat eraikitzea, non, jakina, hezkuntzak funtsezko eginkizuna izango bailuke Ongi

Bizitzea lortzeko. Ongi Bizitzeak proposatzen duen hezkuntza hori komunitate-ikuspegian eta -printzipioetan dago oinarrituta.

Horrek zera esan nahi du: logika indibidual antropozentrikotik (arestian aipatutako EGOtik) irtetea eta logika natural komunitario (EKO) batera sartzea, eta irakaskuntza eta ebaluazio indibidualetik irakaskuntza eta balorazio komunitatera pasatzea; gizakiak naturarekin duen desintegrazio-prozesutik naturarekin integratutako kontzientziara; langileak soilik eskuratzera bideratuta dagoen irakaskuntzatik gure gaitasunak garatzeko aukera ematen digun irakaskuntzara; ulertzea beste helbururik ez duen eta arrazoimenera soilik bideratuta dagoen teoriatik jakinduriaz ulertzeko irakaskuntza praktikora;



Balioen eguneroko praktiken bitartez gizarte ahalmenak indartu.	Hezkuntza espazioak ezagupenak, gaitasunak eta beharrezko jarrerak lantzeko guneak izatea, gizarte demokratiko batean herritartasun kritikoa, solidarioa eta nazioartekoa sustatzeko.	Hezkuntza espazioak ezagupenak, gaitasunak eta beharrezko jarrerak lantzeko guneak izatea, gizarte demokratiko batean herritartasun kritikoa, solidarioa eta nazioartekoa sustatzeko.	Hezkuntza espazioak ezagupenak, gaitasunak eta beharrezko jarrerak lantzeko guneak izatea, gizarte demokratiko batean herritartasun kritikoa, solidarioa eta nazioartekoa sustatzeko.	Hezkuntza espazioak eta inguruko komunitateen artean loturak sortu.

Ilustratzailea Beatriz Aurora, Taularen edukiaren iturria: **¿Qué es el Buen Vivir? Ekuadorreko Errepublikako Hezkuntza Ministerioaren web orrialdean.** web orrialdea

lehia-espiritua bultzatzen duen irakaskuntzatik irakaskuntza-ikaskuntza kooperatibora, izaki bizidun guztiok ongi eta betetasunez bizi gaitezen.

Hezkuntzak ikaslea izango du ardatz, eta modu malgu, dinamiko, barne-biltzaile, eraginkor eta efizientean funtzionatuko du. Kultura arteko ikuspegi bat integratuko du, herrialdeko dibertsitate geografiko, kultural eta linguistikoaren arabera eta komunitate, herri eta nazionalitateen eskubideak errespetatuz. Eta lagundu egingo du zera lortzeko: "gizarte demokratiko bat, ekitatiboa, inklusiboa, bakezalea, kulturartekotasunaren sustatzailea, dibertsitatearekiko tolerantea eta natura errespetatzen duena" (Ekuadorreko Hezkuntza Ministerioa, 2010).

Ekintza-jardunbide egokiak:

Bizi-komunitateak. **Guatemalako haur, nerabe eta gazteekin egindako norberaren garapenerako EPRODEPen lantegien esperientzia** (Ventura, 2018)

Aldizkaria: Ikaskuntza-komunitateak. Eskola

Sansomendi lanbide-eskola. Gasteiz. Ikas-komunitateetan oinarritutako ikastetxea.

Lekeitioko eskola publikoan egindako zaintza-esperientzia baten sistematizazioa.

Zaintzen Pedagogiak aldezten duen hezkuntzaren bidez, gizaki guztiek, bereizkeriarik eta hierarkiarik gabe, modu ezin hobean garatuko dituzte alderdi hauek: komunikazio-gaitasunak eta abilezia erlazional eta instrumentalak, pentsamendu produktiborako arrazoizko sarbidea, sen sozial eta etikoa, berrikuntzarako eta sormenerako gustua, eta jakin-mina (jakin-minak aurkikuntzara baikaramatza). Hezkuntza horrek Ongi Bizitzean, berdintasunean eta dibertsitatearekiko errespetuan oinarritzen den gizarte bat du xedetzat.

Horretarako, beharrezkoa da hezkuntzan bestelako politika publiko batzuk izatea, ezagutza-forma ugariak sormena baliatuz kultura-mugetatik harago elkarrekin lotzea sustatuko dutenak. Eta bestelako pedagogia batzuen alde egingo dutenak, hots, inposatutakoa eta jakintzat emandakoa desikasteko,

izakia teorikoki eta artistikoki berreraikitzeko eta ekintza politikorako jardunbideak dituzten pedagogien alde.

Hitz batez, alternatiba pedagogikoak behar dira, lotuta daudenak komunitate-hezkuntzarekin, egokitasun sozial, kultural eta linguistikoarekin, irakasleen eta eskolen autonomiarekin, eta kulturartekotasunaren jardunbidearekin. Beharrezkoak dira itxaropena, utopia, mundu hobe baten ametsa, desberdintasunekiko errespetua, errealitatearen eraldaketa, askatasuna, emantzipazioa...

Nola egin dezakegu?

Ongi Bizitzea eta, horrekin bat, kulturartekotasuna praktikatzea xede dituen hezkuntzak ezinbestean dakar berekin beste aukera eta jardunbide pedagogiko batzuetan pentsatzea, egindako bideak ezagutzea, hezkuntzan dauden esperientziak balioestea eta haietatik ikastea, eta beste alternatiba pedagogiko batzuen alde egitea.

- Hezkuntza gizaki ororen erantzukizuna da, bai eta ikasle ororen erantzukizuna ere. Horregatik, beharrezkoa da kontzientzia politiko bat sortzea eta pentsamendu kritikoan eta irudimenezkoan heztea. Horren harira, ezinbestekoa da ikasgelan giro bat sortzea, sustatuko dituena justizia eta zaintza, dilema moralak ebaztea, zaintzan oinarritutako herritartasuna eta gizarte-partaidetza. **"Centros de educación transformadora. Rasgos propuestas para avanzar"**
- Hezkuntzak etengabea behar luke izan. Hezkuntza ez da ikasgeletan hasten eta amaitzen; etengabea da: bizitza dinamikoa da, eta, beraz, irakaskuntza eta ikaskuntza ere dinamikoak dira. Etengabe ikasten eta irakasten dugu: ezin dugu egun batean esan jada ez dugula beste ezer ikasteko eta jada dena dakigula. Inoiz ez diogu uzten ikasteari, eta, horregatik, funtsezkoa da hezkuntza ikasgeletatik kanpora proiektatzea, balioestea eta defendatzea.
- Zirkulu gertukoenarekiko harremanak zaintzea. Garrantzitsua da ulertzea dena integratuta eta elkarrekin lotuta dagoela, bizia ehun bat dela eta ehun horretan izaki bizidun guztiok dugula leku bat. Alde horretatik, ikasleak ez dira izaki bakartuak; aitzitik, izaki integratuak dira, eta

komunitatearen funtsezko parte bat dira. Komunitate-irakaskuntzak eta -ikaskuntzak berriro emango dizkigute gizakiekiko eta biziarekiko sentsibilitatea eta inguratzen gaituen guztiarekiko errespetua. Irakasleak ez dira hezkuntzako eragile nagusi bakarrak: komunitate osoa da eragile, hasierako hezkuntza familian hasten baita. Zure ustez, sar al daiteke komunitatea ikaskuntza-prozesuan? Eta zure hezkuntza-arloan? Zure ustez, nola egin daiteke hori? Zure ustez, funtziona al dezake ikaskuntzaren eta zerbitzuaren proposamenak? Web orri hau kontsultatu **jolasetaekin.org**

- Metodologia naturala: animaliak, landareak eta lurra zaintzea. Irakaskuntza-metodologiak ez du arrazoimena soilik xedetzat; orobat izango du kontuan logikoa ez den mundu hori, sentsibilizatzeko eta harekin inplikatzeko. Indibidualismotik komunitarismora pasatzeak sentsibilitatea eta biziaren pertzepzioa berreskuratzea esan nahi du, batik bat afektuaren bidez. Eta pertzepzioa ez da giza mailari dagokiona soilik; orobat bat da inguratzen gaituen unibertso osoarena, non harremanak ez bailuke izan behar subjektu baten eta objektu baten artekoa, baizik eta subjektu baten eta beste subjektu baten artekoa. Izan ere, animaliek, landareek, mendiak, errekak, harriak, etxetxoak... energia dute, eta, beraz, bizia dute, eta komunitatearen orekaren parte dira. Herri indigenei naturak ematen die metodologia, eta objektibotasunak ez du baliorik; izan ere, objektibotasunak hurbilketa xume bat egiteko baino ez du balio, eta ez du aukerarik ematen osotasunarekin elkarrekintzan jarduteko. Haien ustez, "kanpoan" gertakariak edo parteak daudela onartuta norberarengandik ihes egiteko forma ugariak baino ez dira berresten

Bibliografia eta intereseko erreferentziak

Zaintzen etika (ikuspegi feminista)

Comins, I. (2009). *Filosofía del cuidar: Una propuesta coeducativa para la paz.* Barcelona, España: Editorial Icaria.

Verónica, G. *What´s my work when I don´t work?* TEDx Bariloche. Hemendik berreskuratua: ZABALDU ESTEKA

Pérez, A. (2007). *Cadenas Globales de Cuidado*. Instituto Internacional de Investigaciones y Capacitación de las Naciones Unidas para la Promoción de la Mujer (INSTRAW). Hemendik berreskuratua: ZABALDU ESTEKA

Vázquez, V. Escámez, J. y García, R. (2012). *Educación para el cuidado. Hacia una nueva pedagogía*. Valencia, España: Editorial Brief.

InterReden argitalpenak:

Muévete por una educación en igualdad, 2008.

EPD con perspectiva de género: una apuesta local para el compromiso global, 2009.

Educación para el Desarrollo y la Ciudadanía Global. Guía para su integración en centros educativos, 2011.

Los pinceles de Artemisia. Experiencias de formación para la equidad de género, 2011.

Jugar y Actuar. Nuestras armas para la Paz, 2012.

Pistas para un modelo de vida sostenible, 2012.

La revolución de los cuidados, 2012.

La revolución de los cuidados. Tácticas y estrategias, 2014.

Universo de emociones. Experiencias de Arteterapia y Cuidados para la Movilización Social, 2014.

Recorre tu laberinto. Manual de género y autoestima, 2014.

La revolución de los cuidados para ti y para mi, 2016.

La Herencia. Un cómic para actuar con cuidados. Y la Guía didáctica "La Herencia", 2016.

Actúa con cuidados, transforma la realidad. Sistematizando una experiencia lúdica de cuidados en la Escuela Pública de Lekeitio, 2017.

Ludopedagogía: Jugar para conocer, conocer para transformar. Colectivo TresPies, 2017.

Beste argitalpen batzuk

Cerviño, M.J. y Calzón, J. (2004). El misterio del chocolate en la nevera. *Serie Cuadernos de Educación no Sexista Nº 15*. Murcia, España: Instituto de la Mujer

Ekonomia feminista

Amorós, C. (1985). *Hacia una crítica de la razón patriarcal*. Barcelona, España; Editorial Anthropos.

Carrasco, C. (2003). *Mujeres y economía. Nuevas perspectivas para viejos y nuevos problemas*. Barcelona, España: Editorial Icara.

D´Alessandro, M. (2016). *Economía feminista. Cómo construir una sociedad igualitaria (sin perder el glamour)*. Buenos Aires, Argentina: Editorial Sudamericana.

Del Río, S. (1999). Cuidar de l@s demás: un problema ético. *Nodo 50*. Hemendik berreskuratua: ZABALDU ESTEKA

Esquivel, V. (2012). *La economía feminista desde América Latina. Una hoja de ruta sobre los debates actuales en la región*. ONU Mujeres. Hemendik berreskuratua: ZABALDU ESTEKA

Federici, S. (2010). *Calibán y la bruja. Mujeres, cuerpo y acumulación originaria*. Madrid, España; Editorial Traficantes de sueños.

Federici, S. (2013). *Revolución en punto cero. Trabajo doméstico, reproducción y luchas feministas*. Madrid, España: Editorial Traficantes de sueños.

Grupo de estudios feministas y cambio social (2000). La domesticación del trabajo. Trabajos, afectos y vida cotidiana. *Jornadas "Feminismo ES-y SERÁ"*. Jornadas llevadas a cabo en Córdoba. Hemendik berreskuratua: ZABALDU ESTEKA

Larrañaga, I., Arregi, B. y Arpal, J. (2004). El trabajo reproductivo o doméstico. *Gaceta Sanitaria*. Vol.18 no.4. Barcelona, España. Hemendik berreskuratua: ZABALDU ESTEKA

León, M. (coord.) (2003). *Mujeres y trabajo: Cambios impostergables*. Hemendik berreskuratua: ZABALDU ESVTEKA

ONU Mujeres (2016). *Why we care about care? A collection of essays on Care Economy*. Hemendik berreskuratua: ZABALDU ESTEKA

Pérez Orozco, Amaia. (2014). *Subversión feminista de la economía. Aportes para un debate sobre el conflicto capital-vida*. Editorial Traficantes de sueños.

Vázquez, V. (2010). *La perspectiva de la ética del cuidado: una forma diferente de hacer educación*. Valencia, España: Universidad de Valencia.Hemendik berreskuratua: ZABALDU ESTEKA

Ekofeminismoa

Bel, M.A. (1999). *Ecofeminismo: un reencuentro con la naturaleza*. Editorial Agapea.

D´Alisa, G., Demaria, F. y Kalls, G. (2015). *Decrecimiento. Vocabulario para una nueva era*. Barcelona, España: Editorial Icaria.

Herrero, Y. (2015). *Apuntes introductorios sobre el Ecofeminismo. Boletín de recursos de información*. Centro de Documentación Hegoa. Nº 43, junio 2015.

Herrero, Y. (2013). Miradas ecofeministas para transitar a un mundo más justo y sostenible. *Revista de economía crítica. Nº 16*. Pp. 278-307. Hemendik berreskuratua: ZABALDU ESTEKA

Löwy, M. (2012). *Ecosocialismo: La alternativa radical a la catástrofe ecológica capitalista*. Madrid, España: Editorial Biblioteca nueva.

Mello, M. (2000). *Feminismo y ecología*. Editorial Siglo XXI.

Mies, M. y Shiva, V. (1997). *Ecofeminismo: Teoría, crítica y perspectivas*. Barcelona, España: Editorial Icaria.

Mies, M. y Shiva, V. (1998). *La praxis el ecofeminismo: Biotecnología, consumo y reproducción*. Barcelona, España: Editorial Icaria.

Mies, M. y Shiva, V. (2016). *Ecofeminismo*. Barcelona, España: Editorial Icaria.

Puleo, A. (2011). *Ecofeminismo. Para otro mundo posible*. Madrid, España: Ediciones Cátedra.

Puleo, A. (2015). *Ecología y genero en dialogo interdisciplinar*. Madrid, España: Editorial Plaza y Valdés.

Shiva, V. (1995). *Abrazar la vida: Mujer, ecología y desarrollo*. Madrid, España: Editorial Horas y horas.

Shiva, V. (2001). *Biopiratería: El saqueo de la naturaleza y el conocimiento.* Barcelona, España: Editorial Icaria.

Shiva, V. (2003). *Cosecha robada: El secuestro del suministro mundial de alimentos*. Barcelona, España: Editorial Paidós Ibérica.

Suárez-Navaz, L. y Hernández, R.A. (2008). *Descolonizando el feminismo: Teorías y prácticas desde los márgenes*. Madrid, España: Editorial Cátedra.

Warren, K. (2003). *Filosofías ecofeministas*. Barcelona, España: Editorial Icaria.

Ongi Bizitzea

Aguado, G., Cabeza, M. y Castillo, J. (2016). Enseñanzas del Buen Vivir para construir una pedagogía del cuidado. *Revista internacional sobre investigación en educación global y para el desarrollo. Nº 10*. Septiembre 2016. Pp. 71-80. Hemendik berreskuratua: **ZABALDU ESTEKA**

Asamblea Intermedia De Bartolina Sisa a Mélida Amaya Montes y Monseñor Romero (2010). *La Educación Popular en la lucha por el Buen Vivir.* El Salvador. Hemendik berreskuratua: **ZABALDU ESTEKA**

Asamblea Nacional de la República de Ecuador (2008). *Constitución de la República de Ecuador.* Hemendik berreskuratua: **ZABALDU ESTEKA**

Cabnal, L. (2010). Acercamiento a la construcción del pensamiento epistémico de las mujeres indígenas feministas comunitarias de Abya Yala; ACSUR-Las Segovia; en *Feminismos diversos: el feminismo comunitario*. Pp. 10-25. Hemendik berreskuratua: **ZABALDU ESTEKA**

Coordinadora Andina de Organizaciones Indígenas - CAOI (2010). *Buen Vivir/Vivir Bien. Filosofía, políticas, estrategias y experiencias regionales andinas.* Perú. Hemendik berreskuratua: **ZABALDU ESTEKA**

De Souza, J. (2013). *La pedagogía de la felicidad en una educación para la vida. El paradigma del buen vivir/vivir bien y la construcción pedagógica del día después del desarrollo*. En Walsh, C. (Ed.), Pedagogías decoloniales. Prácticas insurgentes de resistir, (re)existir y (re)vivir. Quito, Ecuador: Ediciones Abya-Yala.

Ibáñez, A. (2016). Un acercamiento al "Buen Vivir". *Revista internacional sobre investigación en educación global y para el desarrollo, 10*, pp. 211-224. Hemendik berreskuratua: ZABALDU ESTEKA

Itzamná, O. (2014). *El Buen Vivir no es desarrollo, ni el desarrollo es sostenible.* Biodiversidad en América Latina y el Caribe. Revista Rebelión. Hemendik berreskuratua: ZABALDU ESTEKA

León, I. (coord.) (2010). *Sumak Kawsay / Buen Vivir y cambios civilizatorios.* FEDAEPS. Quito, Ecuador.

Mejía, M.R. (2012). *Las búsquedas del pensamiento propio desde el buen vivir-vivir bien y la educación popular. Urgencias de la educación latinoamericana.* Programa Ondas Colciencias. Hemendik berreskuratua: ZABALDU ESTEKA

Mujeres Amazónicas del Centro Sur, Movilización por la Vida (2013). *Declaratoria del Kawsay-Sacha Tierra Viviente de los territorios de las naciones originarias del Centro-Sur Amazónica*. Puyo-Pastaza, Amazonía del Ecuador. Hemendik berreskuratua: ZABALDU ESTEKA

Oviedo, A. (2013). Revolución educativa o recolonización posmoderna. En Varios Autores, *El correismo al desnudo* (p. 246). Quito, Ecuador. Hemendik berreskuratua: ZABALDU ESTEKA

Quilaqueo, V. (2018). Buen Vivir y Pedagogía de los cuidados. En *Pedagogía de los cuidados. Aportes para su construcción*. Bilbao, España: InteRed.

Sánchez, S.P. (s.f.) *Aprender en la Sabiduría y el Buen Vivir: La propuesta de la Universidad Amawtay Wasi del Ecuador*. Hemendik berreskuratua: ZABALDU ESTEKA

Varios Autores (2012). *Educación y Buen Vivir: Reflexiones sobre su construcción*; Contrato Social por la Educación. Quito, Ecuador. Hemendik berreskuratua: ZABALDU ESTEKA

Testuko erreferentziak

Franke-Grisch, M. (2012). *Eres uno de nosotros*. Alma Lepik.

Lienas, G. (2013). *El diario violeta de Carlota*. Editorial Planeta.

Herrero, Y. y Pascual, M. (2010). Ecofeminismo, una propuesta para repensar el presente y construir el futuro. Publicado en *Boletín ECOS. nº 10* (CIP-Ecosocial) de enero-marzo 2010. Hemendik berreskuratua: ZABALDU ESTEKA

Herrero, Y., Cembranos, F. y Pascual, M. (Coords.) (2011). La centralidad de los cuidados, las mujeres y la sostenibilidad. En Ecologistas en Acción, *Cambiar las gafas para mirar el mundo: una nueva cultura de la sostenibilidad* (pp. 181-201). Madrid, España: Libros en Acción.

Ministerio de Educación del Ecuador (2010). *Introducción a la Actualización Curricular de la Educación General Básica. Programa de formación continua del magisterio fiscal*. Hemendik berreskuratua: ZABALDU ESTEKA

Ventura, D. (2018). Comunidades de Vida. La experiencia de los talleres de crecimiento personal de EPRODEP con niñez, adolescencia y juventud en Guatemala. En *Pedagogía de los cuidados. Aportes para su construcción*. Bilbao, España: InteRed. Hemendik berreskuratua:


GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO


EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO


Bizkaia
foru aldundia
diputación foral


ZAINTZEN
PEDAGOGIA
PEDAGOGÍA DE
LOS CUIDADOS


InteRed
por una educación transformadora